1919TIK | 2.552 ZENBAKIA | 2017/05/07 | 3,90 € | ARGIA.EUS

ARGIA

BURUJABETZAREN OLATUA INDARTUZ DOA

GURE ESKU DAGO-REN GALDEKETAK 50 HERRITAN

MARIO ZUBIAGA
"ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DA NEOLIBERALISMOARI AURRE EGITEKO DISKURTSORIK ERAGINKORRENA"

GOI-MAILAKO VODKA
ARABAKO PATATAZ EGITEN DA

ABEL BARRIOLA
"JENDEAREN ARRETA BUKATUKO DA, BAINA HORI EGOA DA"

ADEL 2017
ANTZERKI FORMAKUNTZA PUNTAKOENA AULESTIN ETA EUSKARAZ

02552
9 771988 139093

AGENDA

Lezoko Unibertsitateko Udala

MAIATZA-EKAINA 2017

MAIATZAK 7, 20:00
Gezala auditoriumean

5€

KONTZERTUA
OSKARBI
"MENDIRA NAIZ" AURKEZPENA

MAIATZAK 9, 19:00
Kultura aretoan

HITZALDIA
KALE ERABILERA
DATUEN AURKEZPENA
BELEN URANGAREN ESKUTIK

MAIATZAK 14, 20:00
Gezala auditoriumean

8€

ANTZERKIA
ONDOKO HILOBIKO TIPOA
TXALO PRODUKZIOA

MAIATZAK 21, 20:00
Gezala auditoriumean

5€

ANTZERKIA
SAREAN KATEATUAK
NOMOFOFIKAK

MAIATZAK 26, 17:00
Gezala auditoriumean

MAGIA
ILUSIOAREN INDARRA
HODEI MAGOA

MAIATZAK 27 eta 28, 20:00
Gezala auditoriumean

5€

ANTZERKIA
EZ HEMENGO, EZ HANGO
ORRATX ANTZERKI TALDEA

MAIATZAK 21, 10:45
Karlos Saldize plazan hasiera

DANTZA
DANTZARI TXIKI EGUNA

EKAINAK 16, 21:00
Bekoerrota kiroldegian

DANTZA
IKASTURTE AMAIERAKO EMANALDIA
MURIXKA DANTZA TALDEA

Lezon natural

LEZO kultur programazioa, klik batean

ARGIA

2.552 zenbakia | 2017/05/07

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Albisteak
7 Hor dena gailu
10 Net Hurbil: Elikadura burujabetza modan dago, nekazari ikusezinak ez

IRITZIAK

17 Aiala Elorrieta
18 Irati Elorrieta
19 Inma Errea
Edu Zelaieta
20 Rosa Martin Sabaris

Agurraren unean, Abel Barriolak pilotari modura egindako hemeretzi urteko ibilbideari begiratua egin dio. (ARGAZKIA: IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS)

37 DENBORAREN MAKINA
38 BIZI BARATZEA
40 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA:
ELEDER AURTENETXE
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: L´ILLUSTRATION

SAKONEAN

12 | Kontxi Trigo: "Osabaren hezurrak familiaren hobira ekarri baino ez dut gura" / Miel A. Elustondo
21 | Erabakitzeko eskubidearen jauzi erraldoia / Xabier Letona
26 | Munduko vodka onenetako bat Araban egiten da, %100 bertako patataz / Irati Sarasua Arabaolaza
30 | Fronte Nazionala: Hondamendia zena normalizatu da / Jenofa Berhokoirigoin
32 | AntzerkHizkuntza: Lotsak ahaztuta, euskarara hurbildu / Dabi Piedra
34 | Abel Barriola: "Jendearen arreta bukatuko da, baina hori azken finean egoa da" / Mikel Garcia Idiakez
42 | Cabezafuego: "Esan nahi dudana ulertzea da nire obsesioa" / Iker Barandiaran
44 | ADEL 2017: Aulesti, antzerkia lotsarik gabe / Ion Olano Carlos
47 | Arte iruzkina: Fernando Amarika / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Harpidetzak: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Biolentziaren ispilu

Apirilean urtebete bete da lurrikara batek Ekuador astindu zuela. 700 pertsona hil eta 35.264 etxebizitza suntsitu zituen. Baina datuek erakusten ez duten kalterik sendagaitzena barruan dago. Urtebeteren ostean asko dira etxebizitzarik gabe jarraitzen dutenak edo gobernuaren kanpamentuetan. Jende pilaketak, berriro lekuz mugitzeko ziurgabetasunak, bizi izandakoaren arrasto traumatikoek, frustrazioek eta, finean, milaka lagunen bizimodua bortizki eraldatu izanak indarkeriari atea zabaldu diote; helduen arteko gatazkak umeen ispilu bilakatu dira. Irudian, La Chorrera herriko kanpalekuko umeak "jolasean".

Argazkia: Edu León · Testua: Axier Lopez

Pertsona bati eraso egin diote Bilboko Plaza Barrian, "Arriba España" oihuka. Betiseko hiru jarraitzaile inputatu ditu Ertzaintzak.

"Erasotzailearen Twitter kontua begiratuz, konturatu naiz, nazi puta bat izateaz gain misogino matxista bat dela. Definitiboki, akonplejatu hutsa"

@ideiazabaldu

"Zergatik diote hedabideek Betiseko ultra dela? Ideia politikoengatik egin dio eraso, eta ez biktima Athletic-ekoa delako"

@Spantrrows

"Aspaldi ez nuen hain ekintza tamalgarririk ikusten. Ez dut halako ultrarik nahi nire futbol taldean. Inoiz. Nazka"

@claras26

"Jendilaje hau areagotzen ari da eta hori da beren *modus operandia*, ezberdina dena jipoitzea"

Qüin Sí

Lau hilabeteko gurasotasun baimena proposatu dute

Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk

Gurasotasun baimena eta seme-alabak zaintzeko baimena lau hilabetera luzatzeko proposamena egitea onartu du Europako Batzordeak. Proposamenak aldaketa handia ekarriko luke Hego Euskal Herrian, lau astetara luzatu berri baita baimen hori.

Bruselan aurkeztu du proposamena Elkarrizketa Sozialerako Batzordeko lehendakariorde Valdis Dombrovskisek. "Familiako eta laneko bizitza uztartzeko" neurriak aurreikusten du gurasoek ordaindutako lau hilabeteko baimenak eskatu ahal izango dituztela seme-alabek hamabi urte bete arte. Neurriak aurrerapen handia ekarriko luke baimen mota horien arloan; Espainiako Estatuak aurten bertan lau asteetara luzatu baitu baimen mota hori.

Gainera, neurri berriak aitortuko du gizonezkoentzat seme-alabaren jaiotzaren inguruan hamar eguneko baimen berria onartzea, eta senide gaixoak zaintzeko urteko bost eguneko baimena. Baimen guzti horiek gaixotasun baja bezainbeste ordainduko lirateke. Bestalde, seme-alabak dituzten gurasoek ordutegi malguak eskatzeko eskubidea edukiko dute.

Batzordeak eman dituen azalpenen arabera, aitek seme-alaben zainketan ardura handiagoa hartzea eta hala emakumeak soldatapeko lanetan pisu gehiago hartzea dira neurrien helburuak. 2015ean gizonezkoak baino %11,6 emakume gutxiago zegoen soldatapeko lanekin, eta diferentzia hori %30era igotzen da sei urte baino gutxiagoko haurrak dituzten familietan, Batzordeak neurria justifikatzeko emandako datuen arabera.

"Langile asko antolatzen ari dira, bizi eta lan baldintza duinen alde borrokatzeko"

ADOLFO MUÑOZ, ELA SINDIKATUKO IDAZKARI NAGUSIA

Bizkaiko zahar-etxeetako langileek greba beste lau astez segitzea erabaki dute eta Maiatzaren Leheneko manifestazioan, protagonismoa eurei eman nahi izan zien ELAk. "Eguneroko murrizketak eta soldata zein lan-baldintza gero eta okerragoak pairatzen dituzte langileek. Langile asko antolatzen ari dira, bizi eta lan baldintza duinen alde borrokatzeko, eta horren adibiderik agerikoena Bizkaiko erresidentzietan dago", Muñozen hitzetan. **2017-04-27**

MAIATZAREN ZAZPIAN
EUSKAL HERRIA ASKI EZ ...
STOP
ORAIN FRANTZIA ERE BEHAR DUGU LIBRATU FRANTZIA-RENGANDIK?
SK

“Hezkuntza gorputzarekin eta gorputzetik egiten da”

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

“Hezkuntza da gorputzarekin eta gorputzetik egiten den zerbait. Gauza bat da zerbait jakin eta ezagutzea, eta beste bat zerbait horretaz jabetzea. Pedagogian normalean ezagutzan jartzen ditugu indarrak, baina jabetzea beharrezkoa da eta jabetzen gara gorputzaren bidez. Zerbait gorpuzten dugunean, haragi egiten dugunean, barneratzen dugunean jabetzen gara horretaz”. Mari Luz Esteban antropologo eta irakaslearen hitzak dira. Steilas sindikatuak antolatuta hezkuntza eta gorputzari buruz emandako hitzalditik hainbat pasarte ekarri ditugu hona.

Gorputzartekotasuna

“Gehiegi pentsatzen dugu gorputz indibidualetan (gure gizarteak gehiegi indibidualizatu duelako pertsona), baina interesgarriagoa da gorputzartekotasuna. Klasearen arrakasta, maila handi batean ez dago zure izaeraren baitan, taldeak talde moduan funtzionatzearen baitan baizik. Taldeko gorputzartekotasunaz ari naiz, talde batekin hasi eta funtzionatzen duen edo ez segituan esaten digun energia horretaz. Nire gorputza beti dago besteekin harremanean; gorputzartekotasun horretan bibrazioak daude, munduak nigan eragiten duelako eta nik munduan”. Nolabait, irakastea da talde horren energia eta arnasa modu onean bideratzen asmatzea, Estebanen esanetan.

Lotsa, ikasgelan lantzeko

“Lotsa sentitzen dugunean, gure ni-a gutxitua sentitzen dugu eta oso esperientzia garrantzitsua da, ez bakarrik modu negatiboan. Josune Irigoienek dio lotsa kontrol mekanismo bat dela, genero ikuspegitik eta emakumeen kasuan gorputzari oso lotua; lotsak ondo erakusten digu patriarkatuaren gune beltzak non dauden. Eve Sedwick-ek dio zerbait transgreditu izanaren sentsazioa dela lotsa, nahiz eta batzuetan zer transgreditu dugun oso ongi jakin ez. Lotsatzen diren umeek erakusten digute non dauden arazoak, eta ez da euren arazoa, gizartean ditugun problemak identifikatzeko da baliagarria. Gorputzak lotsatzen baditu, erakusten digute gorputzari lotuta zein arazo ditugun gizarte honetan. Horregatik, lotsa mekanismo interesgarria izan daiteke ikasgelan lantzeko”.

“Irakasleok ere gorputz bat daukagu”

“Hain agerikoa da gorputza garela, ahaztu egiten dugula. Irakasleok ere gorputz bat daukagu, gorputz osoz irakasten dugu, ez bakarrik hitzaren bidez. Garrantzitsua da mezua nola ematen dugun eta ikasleekin harremana nolakoa den. Azken finean, gorputza izan daiteke problema, kontrola, zaurgarritasun eta ahultasunaren parte… baina aukera ere bada”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Marketin sozialeko erasoaldia Europan

Juan Mari Arregi

Europar Batasunak zuzentarau eta gomendio multzo bat onartuko du agenda soziala berreskuratzeko. Iragarria zuen halakorik egitea, baina ahaztuta zeukan. Familiaren eta lanaren arteko kontziliazioa hobetzeko lau ekimen daude tartean, baita babes soziala –langabetuak barne–, kontratazioa eta lanegunak hobetzeko neurriak ere.

Merkatarien Europa honetako arduradunak, Kapitalaren Europa, oso kezkatuta daude eskuin muturraren gorakadarekin –orain Frantzian ere bai–, “populismoarekin” eta eurofobiarekin. Beldur dira ez ote duten langile eta herritarren artean eztanda egingo. Ez dira gizarte justu eta berdinago baten bila ari. Ez. Urtarrilean munduko eliteak Suitzako Davosen bildu zirenean ere esan zuten: hazkunde ekonomikoaren etekinak apur bat helarazi behar zaizkio jendarteari, matxinada eta mobilizazioak saihesteko. Horregatik, EBk marketin sozialeko operazioa jarri du martxan. Bere jokabidea zertxobait aldatuko du –apurrak banatuko ditu– eredua berarekin etekinak pilatzen segitzeko.

Globalizazio kapitalistari jarraiki, orain arte murrizketa politikak sustatu eta mantendu izan dira EBn, horrek herritar eta langileentzat dakartzan ondorioekin: multinazionalak gero eta aberatsago diren heinean, langileak deslokalizazioak jasan dituzte, soldatak jaitsi dizkiete, babesgabetasun soziala areagotu da, gazteen arteko langabezia ere bai, prekarietatea, desberdintasuna eta diskriminazioa emakumeen artean... Orain, eskuak garbitu nahi dituzte euren Europarekin jarraitu ahal izateko: kapitalarena. Marketin erasoaldi erabatekoa da! Europa sozialak beste eredu sozioekonomiko bat behar du... gaur egun ez al da halakorik existitzen?

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Gernika bonbardatu zutela 80 urte

GERNIKA. 1937ko apirilaren 26an bonbardatu zuen Condor Legio alemaniarrak herri bizkaitarra, frankistekin kolaboratuz. Egun osoan zehar oroitu zuten urteurrena, bai herrian bertan, baita munduan ere. Juan Manuel Santosek, Timochenkok eta Gervasio Sanchezek jaso zuten Bakearen eta Berradiskidetzearen aldeko 2017ko Gernika Saria. Asteburuan berriz, Ongi Etorri Gernika ekimena egin zuten, errefuxiatuak Euskal Herrira ekartzea aldarri.

Taser pistola hilgarriak erosi ditu Ertzaintzak

Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk

Ertzaintzak Taser pistola elektriko paralizatzaileak erosi ditu, nahiz eta Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak onartu duen arma horiek ez daudela homologatuta eta ez dakitela epilepsia edo bihotzeko arazoak dituztenengan nola eragin dezaketen. *Público* egunkariak jaso du albistea.

500 hildako

Deskarga elektrikoak eman eta biktima paralizatzen dute. Arma "ez hilgarri" gisa kalifikatuta egon arren, Amnistia Internazionalen arabera 2001-2012 artean AEBetan gutxienez 500 lagun hil zituen poliziak Taserren bidez.

50.687 euro

Jose Ramon Becerra Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak arma horiei buruz galdetu dio Beltran de Herediari. Kontseilariak erantzun dio 50.687,68 euro gastatu dituztela erosketan.

Noiz erabiltzeko?

Taser pistolak Ertzaintzak sortu duen Berehalako Erantzunerako Patruila Zerbitzuak erabiliko ditu. "Egoera kritikoetan" esku hartzeko sortu dute unitatea. eta etxe-kaleratzeetan adibidez parte hartu izan du.

MOZAL LEGEA

900

euroko isuna eskatu die Espainiako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan kateatu ziren EHEko hiru kideei, Mozal Legea aplikatuta.

30

urte bete ditu Vascuencearen Legeak, eta euskara Nafarroa osora zabaltzea aldarrikatu nahi izan zuten ekintza horren bidez.

JUANBA BERASATEGI HIL DA

1951n jaioa, euskal zinemari esparru berriak zabaldu zizkion, animazioarenak adibidez. 1985ean *Kalabaza tripontzia* marrazki bizidunetako lehen film luzea zuzendu zuen. Donostiako Zinemaldiko Zinemira Saria eman zioten 2013an.

ERRESISTENTZIA FASEA

Gipuzkoa Zutik-ek jakinarazi du Zubietako erraustegia eraikitzeko kontratua lortu duten enpresek mugimenduak egin dituztela obrak hasteko, eta erresistentzi fasea" inauguratutzat eman dutela.

GASTU MILITARRA

Espainiako Aurrekontu Orokorretan 7.638 milioi euro aurreikusten dira Defentsa Ministeriorako. Baina Utopía Contagiosa kolektiboak aurrekontuak aztertu eta ikusi du beste ministerioetan ezkuturik egiten den gastu militarra eta zorra batuta benetako gastua 33.762,4 eurokoa dela.

Elikadura burujabetza modan dago, milioika nekazari ikusezinak ez

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Nahasketa berezia osatzen zuten apirilaren 24tik 26ra *Elikadura 21* biltzarrerako Gasteizko Europa zentrora mundu osotik etorritako baserritar, unibertsitario eta mugimendu sozialetako kideek. Aztergai zeuzkaten *Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI. menderako*. Eztabaiden muinean, elikadura burujabetza: nekazari txikien Via Campesinak 1996an sorturik, XXI. mendeko krisitzarraren ostean eskuinak ere bereganatu nahiko lukeen kontzeptua.

Gasteizko *Elikadura 21*en antolatzaileei begiratzen badiegu, alde batetik dago Etxalde mugimendua, loturik dagoena EHNE Bizkaiari eta honen bidez Via Campesina mundu mailakoari; eta bestetik Hagako ISS Institute for Social Studies institutua, zeinak sustatzen baitu ICAS Nekazaritzako Ikerketa Kritikoen Institutua.

Laguntzaileen artean agertzen diren hainbat erakunde publiko, fundazio eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen artean bat nabarmentzekotan, Transnational Institute, buru ezagunen artean daukana Susan George, globalizazio neoliberalari buruzko ikerketa eta borroketan txit ezaguna den emakumea: Baionako armagabetze herritarraren ospakizunean ingelesezko agiria irakurri zuenak ireki zuen Gasteizko biltzarra ere.

Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI menderako tituluaren pean, egitarauak sei multzo mamitsu zeuzkan. Kapitalismoa, klasea, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. Klima aldaketa eta konbergentziak. Garapen-ereduak kapitalen, ondasunen eta jendearen fluxuen testuinguruan. Ekoizpen bideetarako irisgarritasuna eta haien kontrola. Kontsumoa, osasuna, nutrizioa eta elikadura eskubidea. Eta elikadura burujabetzarako mugimenduak.

Biltzarraren lehenbiziko jardunalditik kide askok nabarmendu du "elikadura burujabetza" neoliberalen eskuetatik libre edukitzeko beharra. Manitobako (Kanada) Unibertsitatetik etorritako Anette Desmarais irakasle eta militante beteranoak kontatu du nola sortu eta zabaldu zuen 1996an kontzeptua Via Campesina mugimendu orduan gazteak. Geroztik, elikadura burujabetza txertatu da mugimendu sozial guztietan, aipatu eta barneratu dute beren erresistentzia ereduetan, eta mundu akademikoak bibliografia zabala eskaini dio ikerlan ugarirekin.

Hari beretik tiraka zabaldu ziren gero 'Energia Burujabetasuna', 'Hazien Burujabetza' eta beste, tematika berriak sortuz eta zaharretan txertatuz. "Azkenean paradigma oso bat bihurtu da elikadura burujabetasuna", esan du Desmaraisek. "Nekazariek sortutako ideia horrek, gainera, protagonismoa hartu du klimaren aldaketaren ondorioak denen begien aurrean azaldu direnean".

Orain, aldiz, arrakasta arrisku bilakatu zaio ideia berrizaleari. Raj Patel asiar jatorriko irakasle ingelesarentzat, gaur Indian agintzen duen edozein agintari nazionalistak lotzen du elikadura burujabetza India –edo Le Penen kasuan Frantzia, berdin Trumpen Amerika– "berriro herrialde handi" bihurtzeko asmoarekin. Krisi ekonomikoarekin azaleratu direnenean globalizazioak jendeetan eragindako zauriak, berriro indarrean datoz nazionalismoak eta protekzionismoa. Elikadura burujabetzarekin ere, neoliberalak kapaz dira beren logikaren kontra sortutako kontzeptua hartu eta erabiltzeko, manipulatzeko, merkatu kapitalistetan gertatzen dena hobeto ezkutatzeko herritarren begietatik.

Paul Nicholson euskaldunak, Via Campesinako lider erreferentzialetakoa ere badenak, garden utzi nahi izan du elikadura burujabetza aldarrikatzean herrien eskubidea dela aipatzen, ez herri bateko merkatuen kontrola bertako elite boteretsuei ematea. Eta, bigarrenik, herri guztientzako dela eskubidea, alegia, ez elikadura burujabetzaren izenean lekuko merkatua inportazioetatik babestu eta aldi berean auzoko herrialdeetako baserritar txikiak itotzeko agro-esportazioak sustatzeko.

Hain ugariak, hain ikusezinak

Biltzarra irekitzeko saioan egotekoa zen Mixel Berhokoirigoin, euskal nekazarien artean ezagunena. Ez zuen, ordea, Gasteizeraino hurbiltzerik izan, ETAren desarmatzeko mugimendu herritarrean egindako lanaren ordainetan Parisko epaile batek Frantziatik irtetea eragotzi diolako.

*Berhoko*k bideoz emandako hitzaldian bere estilo didaktiko ezagunean laburbildu zuen elikadura burujabetzaren funtsa, entzuleen irudimena lanean jarriz. "Munduko mapa bat egin dezakegu azalduz non diren jende gosetuak eta non jende ondo aseak. Gero eginen dugu beste mapa bat gure planetaren lurrak klasifikatuz beren emankortasunaren arabera, hobeak eta txarragoak. Pentsa liteke bi mapek berdintsuak beharko lu-

Etxalderen 'Elikadura 21' webgunetik hartutako argazkian, apirilaren 25eko saio nagusietako bat. Urrunenetik hasita, Harriet Friedman (Torontoko unibertsitatea), Mikel Hiribarren (ELB), Susan George (Transnational Institute), Valter Israel da Silva (Brasilgo Nekazari Txikiak), Raj Patel (Texasko unibertsitatea, hizketan), Raul Delgado Wise (Zacatecaseko unibertsitatea) eta Yan Hairong (Hong Kongeko unibertsitatea). Da Silva bera da salatzen duen ikusezintasunaren adibidea: nekazaritzatik bizi den arren, Brasilgo estatistiketan ez da agertzen... bere etxaldea estandar ofizialetarako txikiegia delako.

ketela, gaizkien elikatua den jendea bizi beharko lukeela lur txarrenak diren eremuetan. Baina ez da horrela gehienetan, lurrik onenak diren lekuetan askotan jendea goseak bizi da".

Gaurko elikadura sistemaren disfuntzio hori eta beste batzuk –zergatik dauka Europak esnea soberan eta ardi haragia faltan?...– erabaki eta plangintza politikoekin daukate zerikusi zuzena, eta horiek aldatzen saiatzen dira Via Campesinak biltzen dituen nekazariak.

Agroekologian eta lekuko nekazaritzan borrokatzen direnei galdera sorta ere laga zien Berhokoirigoinek. Munduan jendea gero eta gehiago hiri handi eta megapolietan bizi denez, nola elikatu jende horiek? Agroekologiaz gain nola antolatu megapoliak asetzeko agro-industria eta agro-distribuzioa? Produktuen prezioetan, nola uztartu laborarientzako duinak eta aldi berean hiritar ez aberatsentzako eskuragarriak izatea? Eta nola antolatu teknika eta teknologia berriekiko harremanak?

Baina arazo larri bat dute munduko nekazariek: milaka milioi izanagatik eta gainerako mundutarren gosea asetzeko lan egin arren, ikusezinak dira. Ikusezin bihurtu dituzte. Biltzarrean entzun dira inbisibilitate horren aspaldiko eta gaurko ezaugarri asko. Valter Israel da Silva baserritar txiki brasildarrak grafikoki erakutsi zuen nola administrazioek estatistikak ere antolatuta dauzkaten laborarien jardueraren zati handiena inon ager ez zedin, agro-industriari lotuak ez izan arren mundua elikatzeko lanik gehien egiten dutenena, alegia.

Hein batean ikusgarritasuna berreskuratu die baserritarrei Via Campesinak elikadura burujabetzaren inguruan hamarkadotan lortutako aliantzekin: Gobernuz Kanpoko Erakundeekin, gizarte mugimenduekin, mundu akademikoarekin, sindikatuekin... Baina kapitalismo neoliberalak ere inoiz baino ofentsiba handiagoa darama nekazari txikien kontra, merkatuak, ongarriak eta haziak kontrolatu ostean, orain lurraldea bera kendu nahi zaie herritarrei eta zehazki nekazariei. Peter Rosset irakasleak esan bezala, kapitalaren ofentsiba berrian jokoan dago lurraldea bere osotasunean, lur, jende, ur, haziak eta historia barne.

Gasteizen entzun ziren Txinako adibideak, Indiakoak, Bizkaikoak, bazter guztietakoak; eta denetan lotzen ziren klimaren krisia, elikadura, krisi ekonomikoa, zorpetze publiko eta pribatua, kontsumoa, errepresioa, desjabetzea. Beldurrak eta itxaropenak, Monsanto eta Zero Aurrekontuko Laborantza.■

Kontxi Trigo

«Osabaren hezurrak familiaren hobira ekarri baino ez dut gura»

Margolari da, eta ezkerreko militante errebelde, alderdi politikoaren diziplinaren morrontza eraman ezin duena. Hizketan joan, eta, ez bat eta ez bi, kanposantura eraman gaitu zuzen. Hilen artean margolanik ez, hilen memoria bizia besterik.

Miel A. Elustondo
ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Margolariaren bila etorri naiz, margo artean izango ginelakoan, eta aldiz, Turtziozeko hilerrira erakarri nauzu.

Amaren neba zaharrena hemen hilobiratua delako, Jose Maria Eletxigerra Matienzo, gure osaba Mari. Oraindik orain jakin dugu, ez ezazu uste. Etxean ez genekien 1937ko abuztuaren 13an hila zela besterik. Ez genekien non, ez nola. Egia esan, nik ez dakit nola sartu zen gerra gure ibarrean. Gure ama zenak eta osaba Jesusek zioten Sopuertan edo Artzentalesen nonbait egon behar zuela osaba Marik, baina egundo ez zuten jakin zehatz non zegoen lurperatuta. Horixe jakin gabe hil ziren biak.

Jose Mari non zetzan ez zekitela.

Amak ez zuen horren gainean txintik esaten. Nahiko drama bada, berez, senidea hil dizutela jakitea, eta are drama handiagoa, berriz, maite duzun hura non den ez jakitea, haren hezurrak bada ere. Kontu horren gainean ama beti isilik, hala ere. Osaba Jesusek esanda jakin nuen nik zer edo zer. Harreman berezia genuen, konfidentziak egiten genizkion batak besteari. Bistan da, osaba hildakoarenak berak kontatzen zizkidan. Esaten zidan Francok anaia hil ziola, 1937ko abuztuaren 13an. Besterik ez.

Zuk besterik jakin duzu, ordea.

Aranzadira jo nuen, osaba gerran hila eta desagertua nuela esanez. Dena den, hori baino lehen hasten da historia. Badira urte batzuk, Durangoko Azokara joan, eta stand bat eta stand bi, letra artean igeri, bilduma bat, *Gerra civil en Euskadi, 1936*, eta liburukietako bat parez pare irekia: Jose Maria Eletxigerra Matienzoren izena zekarren orrialde hark doi. "Gure osaba zena!", esan nion neure buruari. Orduan jo nuen Aranzadira, bilduma aipatuz, liburukiaren zenbakia eta orrialdea adieraziz, eta UGT-10 Batailoia, Erreserba ere aipatuz, hau da, liburutik kopiatutako oharra.

Sozialista zenuten osaba Mari.

Ez dakit. UGTren batailoian zegoen, baina ez dakigu ideologiak eraman zuen hara, edo halaxe fortunatu zen gauza, zeren, esate baterako, osaba Jesusinek Abellaneda batailoian egin zuen gerra. Ama ere abertzalea genuen, eta litekee-

Kontxi Trigo Eletxigerra

1949, Kontxa, Karrantza Harana

Irakasle izana. Hainbat herri eta eskolatan jardun zuen lanean 1972az gero, harik eta oposizioak gainditu eta plaza irabazi zuen arte. Besteak beste, Karrantzan bertan, Lekeition, Barakaldon eta Bilboko Otxarkoagan irakatsi zuen. 80ko hamarkadaren hasieran laster jo zuen gaitzak, erretirora sasoiz eraman zuen depresioak, margotzera eraman zuenak José Barceló artistarekin. Pintzelen bidez hegan egiten ikasi zuen. Militantea, ekintzailea, zirikatzailea… Osaba Mari zenaren memoria zaindari oraingo egunean.

na da Jose Mari ere hala izatea, baina ez dakit, amak ez zuen eta txintik esaten, esan dizut. Tabua zen. Amak ez zuen gaia inoiz haizatu. Inoiz ere ez. Osabak esanda dakit nire apurra.

Durangoko Azokan izaten den liburu eta letra anabasaren artean, zure osabaren izena leitu zenuen.

2011n izan zen. Ahizpa eta koinatua nituen ondoan, eta gogoan dut ahizpak esan zuela: "Hara, gure osabaren izena darama!", eta koinatuak, berriz: "Etxean daukagu-eta entziklopedia hori!". Eta etxera etorri eta berriz leitu genuen. Ez nintzaion segidan lotu gaiari, ordea. Beste nonbait neukan burua. Orain dela urte bi, ostera, Aranzadiko helbidea jakinarazi zidan ilobak, eta eskribitu egin nien, e-postaz. Erantzun ere bai haiek, baina gura ez ditudan mezuen ontzira jo zuen Aranzadiren erantzunak. Halako batean, ahizpak: "Aranzadikoek erantzun zizuten?", eta nik: "Ez. Berriro eskribituko diet". Sartu nintzen postontzira, eta betea nuela ziostan ordenagailuak, mezuak ezabatu behar nituela. Betiko tekela! Ezabatzen hasi, eta gura ez nituen mezuetan, Aranzadirena. Unean bertan erantzun nien.

Zer zioen Aranzadikoen erantzunak?

Hemen, kanposantu honetan bertan datzala. Lehenik eta behin esan zidaten Jose Maria Eletxigerra Matienzorik ez dela inon ageri, Jose Maria Etxigerra baino. Segidan esan nien gure osaba izan behar zela, heriotza-datak bat zetozelako, eta gure deiturak mila eta bat itxuraldatze izan dituelako gure birraitaitaz gero. Aretxederra Sanchoyerto zen hura, Gordexolan sortua. Haren oinordeak, ostera, Etxigerra gara oraingo egunean. Agirietan, bestalde, Aligurra, Adigerra eta beste zenbait perla leituak ditugu. Etxigerra, bistan da, Eletxigerra da, gure osaba Jose Mari zena.

Dena den, beste zenbait hobiratu ere badira zulo berean.

"Pedro Aldai, Demetrio Ayuso, Casimiro Mena, Jose Maria Etxigerra, Luis Valbuena... 1937ko abuztuaren 13an gerra ekintzan soldadu hilak, 62. hobian lurperatuak". Turtziozeko hilerri honetan, jakina. Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpena jasoko nuela esan zidaten Aranzadikoek, eta bai jaso ere handik zortzi egunera. Zeharo hunkitu ninduen osaba non zegoen lurperatua jakiteak. "Gezurra dirudi, bizian ezagutu ez dudan batengatik ari naiz negarrez", niotson neure buruari. Ez nuen ezagutu, baina banuen ezagutu... Amaren isilaldien bidez ezagutu nuen osaba Jose Mari, eta osaba Jesusinen konfidentzien bidez.

Zintzoak, gaiztoak

"Ez dakit Espainiako gerra zibilak nola jo zuen Karrantzan, baina bonbardaketak izan zirela bai. Gure amaren auzoari senarra hil zioten. Aita mendian ezkutatuta zegoen 'liberazioa' etorri zenean, nazionalen 'okupazioa', alegia. Osaba Pedro, berdin. Amaren familia abertzalea zen; aitarena, aldiz, eskumakoa. Baina uste dut zintzoen eta gaiztoen artean banatzen zuela mundua, beste barik".

Memoria historikoa

"Telebista piztu eta ez da memoria historikoa baino ageri. Lehengo batean, Legutio azaldu zen. Berrikiago, 87 urteko agure bat, Avilakoa zen edo Valladolidekoa ez dakit, Espainiakoa behintzat, aita gerran hildakoaren hezurrak hobi komunetik atera eta sendiaren panteoian sartu gura zituena. Agureak zioen, Administrazioak memoria historikoa berreskuratzeko hitza emana duela, baina berari urratsik egiten ez diotela laguntzen".

Eletxigerra, Aretxederra

"Familiaren zuhaitz genealogikoa egiten ari nintzela, gure benetako deitura azaldu zen: Aretxederra. Eta galdera egin nion neure buruari: 'Zertan izan behar naiz ni Eletxigerra, Karrantzako arbasoak Aretxederra badira. Garaiko inkisidorearen eskuak oker eman zuen gure izena. Etxigerra, Aligerra, Agigurra...'. Aldatzekotan nintzela, osaba Jesus hil zitzaidan, eta Eletxigerrari eustea erabaki nuen, beraren memorian".

Lehen ere esan duzu, "konfidentziak".

Nire kutuna zen osaba Jesusin. Egia esan, uste dut erreziprokoa zela sentimena, haren kutuna nintzela ni. Adibidez, pentsatu ere ez nik gurasoei esatea halako edo halako manifestaziora joan nintzela. Hala ere, amak zer edo zer igartzen zidan, han hasten zen eta: "Manifestazioan izan zarela esan didate...". Seguru nago inork ez ziola ezer esan, baina amatasuna zer den, amak igarri. Osaba Jesusinekin ez nuen ezkutuan ibili beharrik. Hari argi eta garbi esaten nion, manifestazioan izan nintzela kontatzen nion. Bera nuen gauza horietan konfidente.

Zuk zeure konfidentziak osabari, hark bereak zuri.

Bai. Berak, besteak beste, gerra aurretik kantatzen zituztenak kantatzen zizkidan... *"Si a tu ventana llega Sabino Arana, trátale con cariño que es bizkaitarra. Si a tu ventana llega Indalecio Prieto, dale dos estacazos, que es maqueto"*. Eta gauzak zer diren, amak bizian ez zidan horrelakorik kantatu, baina hil baino hilabete, bi hilabete lehenago, osabak kantatu izan zidana kantatzen hasi zitzaidan. Inoiz entzun ez niona. Osaba oso zen kantaria. *"Si vas al monte Artxanda, no pises las chiribitas, que están regadas de sangre nacionalista".* Aitak ez zuen horrelakorik kantatzen, jakina, aita espainola zen eta, baina ez ohiko espainola. Ez nuke esango. Nik, berriz, espainoltasunetik ez baina abertzaletasunaren adarretik jo nuen, kausa galduen abokatu, beharbada.

Kantuak kantu, hemendik atzera, zer?

Hezurrak bertatik ateratzea, ahal bada, eta legeak horretarako baimena ematen badu. Horretan ari naiz, ahaleginak egiten, Eusko Jaurlaritzaren Gogora Memoriaren institutura eta Aranzadira. Gura nuke gure osaba zena erbestean egon beharrean, auzo herrian, familiarekin batera atseden hartzea, Ahedoko San Migelen parrokian, non jaio, jaunartzeak egin, ezkondu eta hil baitira

amaren aldeko nire arbaso guztiak. Ahedon dira, bestalde, nik maite ditudan guztiak: gurasoak, osaba Jesusin, anaia, koinatua... Denak.

Oztopoak ere izango dira horretarako, ezta?

Hobi komun mordoa dago hemen, eta Eusko Jaurlaritzaren murrizketak ere mordoxka dira. Ezetz diote, baina bere horretan dira murrizketak... Ni, neure aldetik, Aranzadikoei esanda nago, prest nagoela behar den lekura joan eta DNA frogak egiteko. Hala ere, leituta nago senideen artean egin litezkeen frogak zertan diren, eta nonbait, aitaita-amamen eta biloben arteko DNAk konparatu ahal izateko arrak behar dira, ez du balio arra eta emearen arteko konparatzeak. Hori leitu nuenean, ingudearekin buruan jo banindute bezala sentitu nintzen. Jota utzi ninduen hori jakiteak. Aukeran, kasik gurago nukeen Turtziozeko hilerri honetan datzala jakin izan ez banu. Hain hurre, batetik, eta hain urrun, bestetik, antsietate atake moduko bat izan nuen. Besterik da hobi komun honetan lurperatuta dagoen osaba Mariren hezurretako DNA haren anaia Jesusenarekin konparatzea, nahiz eta horretarako lurpetik atera beharko litzatekeen gure osaba Jesusin. Kasua hori balitz, badakit ez nintzatekeela bertan egoteko gauza izango, badakit.

Orduan bai, bakea izango zenuke?

Orduan, familiakoak hilerri honetan batu, fusilatuen memoria lantzen ari direnak gonbidatu, Aranzadikoei ere kasu egin, eta omenaldi xume bat egin. Osabaren hezurrak familiaren hobira ekarri baino ez dut gura. Orduan, kito. Seguru nago, dagoenean dagoela ere, gogo onez ikusiko lukeela hori osabak. Amak ere bai, nahiz eta ez zuen esango.

Historia bildu dugu Karrantzan, gero. Ezezaguna zaigu beti Karrantza.

Karrantzaren gainean ez da berbarik egiten, ez bada zerbait oker gertatu delako, negatiboa. Positiborik gutxi entzuten da Karrantzaz. Txarrago zen lehen, hala ere... Ahaztuak gara, Karrantza, eta Enkarterriak oro har. Ez dakit garraiobide kontua den, bakarrik. Hori ere bai, seguru. Esan dizut amak ez zuela askorik kontatzen, baina berak esanda dakit gerra aurrean etxe ondoan genuela batzokia, mitinak egiten zirela, eta haietan esaten zutela tunel bat egingo zutela, Karrantza Balmasedarekin lotzeko. Kolitxa mendiaren mazela batean duzu Karrantza, eta bestean Balmaseda. Kolitxa zulatu eta biak lotzea zen orduko mitinetan esaten zutena. Lekutan! Mantsoagatik egingo zuten gaur, baina laurogei urte baino gehiago joan dira gerra aurreko mitin haietatik, eta hemen gara oraindik, bigarren ez, hirugarren edo laugarren mailako errepidea dugula. Zallatik Bilbora autobia egin dute, bai, baina Zallatik hona ezer ez. Administrazioak zeharo ahaztuak gauzka.

Azken hitza: Post scriptuma

Elkarrizketa egin eta egunetara, berri ituna du Kontxi Trigo Eletxigerrak. "Hilobia hustekotan ziren Aranzadikoak, baina ezetz, ez datozela esan didate. 1942an atera zituztela guztien hezurrak osabaren hobitik eta alferrik saiatuko direla inoren hezurren bila. Hezurtegira bota zituztela hezurrak eta ez dagoela haien berri jakiterik. Jota nago, hondoa jota!".

Erakargarririk ez ote da Karrantzan? Halako ibar ederra eta.

Hondatuta ez dago, ez. Aski ukitu gabe dago. Eta Pozalaguako haitzulo ikusgarriak ere hor dira beti. Zoragarria zen –zoragarria da oraindik–, baina harri mordoa atera zuten bertatik, anfiteatro bat egiteko. Laserrez ebaki zuten harria. Udan, musika jaialdia egin zen bertan. Pizten zituzten argiak halako moduan, non sekulako efektuak egiten baitzituen harrietan: batean, ahari baten burua ikusiko zenuen; bestean, izaki desitxuratu baten ahoa. Anfiteatroa egin zuten –gauza gris bat, hotza–, Francoren Erorien Harana ekartzen dit gogora. Are gehiago esango dizut, uztailak 18 zuen egun batez ireki zuten, eta beraz, ez nintzen inaugurazio ekitaldira joan. Badira data batzuk oroimenean iraun behar dutenak, eta uztailaren 18an ezer inauguratzea gustu txarrekoa iruditzen zait. Guztiarekin ere, ikusgarriak dira haitzulo Pozalaguakoak.

Ustekabea izan dut oraingo Kontxi Trigo Eletxigerra, edo Aretxederra. Non da zure baitako margolaria?

Tokitan. Trementina esentzia mordoa esnifatu beharko nuke berriz margotzen has nendin. Aita hil zitzaidanean, 1999an, barrutsik geratu nintzen. Ondoren, ama zaintzeari lotu nintzaion, 2006an hil zen arte. Orduan, are eta hutsago nire barrua. Eta barrua hutsik duzula, zer margotu behar duzu? Ezin ezer margotu. Osaba Jesus hil zenean ere bolada egin nuen margotu gabe. Halako batean, pintzelak hartu, margotzen hasi, eta iluna zen nagusi nire margolanetan. Altzariren bat berriztu, horixe egiten dut orain lantzean behin, baina margotu, mihisea zikindu, kolore eman? Ez. Trabatuta geratu naiz. Ez da delitua?

Artistak ez margotzea delitu den heinean.

"Artista" hitz handia da, letra larriz eskribitzekoa. Gogo onez hartuko nuke artista izatea, baina horretarako asko baino gehiago landu behar da margolana, eta nire kasuan urteak dira margolanik lantzen ez dudala, ez asko, ez gutxi: batere ez. Hutsik nago, eta hustasunak leku asko betetzen du. Ez duzu uste? ■

Letra larriz

Aiala Elorrieta
EKONOMIALARIA

Letra larriz idatzita datorrenean oso diziplina serioa da Ekonomia. Gogoan dut oraindik zelakoa izan zen lehen gerturatzea zientzia honetara. Institutu garaian arbelean irudikatu ziguten grafiko hura, Ekonomian murgiltzeko lehen gezur handia izan zen. Erdigunean kokatuta zeuden merkatu eta enpresak, ekonomiaren eta beraz, munduaren jaun eta jabe ziren. Enpresak aberastasunaren sortzaile ziren bitartean "familiek" beste bi eginkizun betetzen zituztela erakusten zigun irudiak; lantegientzat eskulana alde batetik, eta kontsumitzaile bestetik. Itxura batean kaltegabea zirudien grafikoaren bitartez, Ekonomiari posizio faltsu batetik begiratzen hasi gintzaizkion. Lehendabiziko egun hartatik arrakalaz betetako mundu bat eraikitzen hasi ginen.

Lehen iruzur hau, gezur gehiagoz elikatuz joan zen. Fakultatean Ekonomia ortodoxo eskola ordu asko irentsi behar izan genituen, eztarrian trabatu zitzaizkigun eredu makro eta mikro zorrotzak, formula potoloak eta funtzio matematikoak. Urteak igaro ziren Ekonomia hura hankaz gora jarri eta bestelako bat eraikitzen hasteko. Unibertsitateko bigarren urtea izango zen Marxismoaren teoriak ailegatu zitzaizkigunean. Erne kapitalismoarekin, mingarria da eta! Egun hartan ere, grafiko bat erabili zuen irakasleak Kapitalak lana zelan esplotatzen duen azaltzeko. Kapitalismoak lana, langilea, eta beraz gizona zelan desjabetzen zuen ikusarazteko. Lana, lana, lana, gizona eta lana, Artzeren poesiaren erritmoarekin bat.

Berriz ere urteak pasa ziren Marxek salatutako esplotazio hari beste dimentsio bat emateko. Ekonomia feministaren lehen arnasak graduko ikasketen ostean heldu zitzaizkigun, masterreko eskoletan. Ikuspegi feministak ikusarazi zigun, Kapitalismoak lantegietako gizonez gain, etxeetako emakumeak ere esplotatu eta desjabetu egiten dituela. Alegia, Marxen terminoak erabiliz, Kapitalismoak langilea merkatuan esplotatzen duen era berean, unitate domestikoa ere esplotatu egiten duela. Eskola horietan ere hainbat irudi izan genituen lagun eta guztien artean, *Iceberg* itxurako hura dut gogoan. Icebergaren tontorra begi-bistan dagoen ekonomiaren esparrua da, ekonomia produktiboa. Zatirik mardulena, erabat ikusezin, urpean gordeta dagoena da eta merkatuz kanpoko ekonomiaren esparru horiek dira sakonean, Bizitza sostengatzen dutenak. Letra larriz, izan ere, Bizitzak zaintzeko gai diren ekonomiez ari gara. Kapitalismoa Bizitzaren aurka baitoa eta gatazka, Amaia Pérez Orozcoren hitzetan, Kapitala eta Bizitzaren artean dago.

Ekonomia feministaren lehen arnasak graduko ikasketen ostean heldu zitzaizkigun, masterreko eskoletan. Ikuspegi feministak ikusarazi zigun, Kapitalismoak lantegietako gizonez gain, etxeetako emakumeak ere esplotatu eta desjabetu egiten dituela. Alegia, Marxen terminoak erabiliz, Kapitalismoak langilea merkatuan esplotatzen duen era berean, unitate domestikoa ere esplotatu egiten duela

Ekonomiako lehen eskola hartan sostengaezina den mundu bat marrazten hasi ginen irudi soil batean oinarrituta. Xalo eta neutrotzat saldu ziguten epizentroan, jainkoa bailiran, merkatuak zituen irudi hura. Egitura sozioekonomiko horretan, helburua kapital metaketa izanik, ez da bizitza eta lurra zaindu beharraren arrastorik inon ageri eta ez dago Kapitalismoak eragiten duen kaltearen inongo arrastorik. Antza denez, mundu horren arrakalak ikusi ahal izateko ezinbestekoa da krisialdiak nozitzea, zaintza eta klimaren krisiak pairatzea. Bestela, ez gara gai sinesteko Kapitalismoak lana, gizona eta unitate domestikoak esplotatzeaz gain, ama lurra ere esplotatzen dituela.

Garrantzitsua da mundua nola begiratzen eta ulertzen dugun, horrek baldintzatuko baitu mundu honetan nola biziraungo dugun. Gai larria ere, Ekonomia zelan eraikitzen dugun gure iruditerian. ■

Ispilutxo, ispilutxo...

Irati Elorrieta
IDAZLEA

Ile urdinak ikusi zizkidan lehenengoz atea ireki nion batean. Nik arratoi bat ikusten dudanean izaten dudan erreakzioa izan zuen: izu deiadarra, eskua begien aurrean. Gure auzokoa zen, laguna, gizonezkoa, frantsesa, paraje hauetan lantzean behin piropo bat esaten zekien bakanetakoa. Egun hartan ile urdinak ikusi zizkidan, ikaratu egin zen. "Zuk ez dituzu, ala?", galdetu nion. Hatz erakuslea ezpainen aurrean jarri zuen sekretua gordetzeko eskatuz: "Atera egiten ditut".

Urte batzuk pasa dira ordutik, eta ugaritu egin dira nire ile urdinak. Lagun frantsesa urrun bizi da orain, eta ez nau ikusi behar. Beste batzuek ordea, egunero ikusten naute. Neuk ere ikusten dut neure burua egunero ispiluan, atzera bueltarik ez duen prozesuan sartuta.

Gainbeheraz idatzi zuen hemen Angel Errok duela aste batzuk. Gai potoloa da gainbehera; nik soilik bere alderdi fisikoari, estetikoari, begiratu nahi diot begietara ispilu aurrean. Arnasa sakon hartuz, bigarren begiratuan genero auzi batekin egiten dut topo. Eta genero auzi gehienetan gertatzen den bezala, ohiturekin hausteak eskatzen duen lanarekin. (Lana, pedagogia, solidaritatea, denbora...).

Follow your Nature, dio arropa marka baten aurtengo udaberri-udako publizitate kanpainaren esloganak. Mads Mikkelsen aktore danimarkarra da gizonezko modeloa, 50 urtetik gora ditu, kanpaina bereko emakumezko modeloak baino ia hogei gehiago. Oso naturalak dira bien argazkiak, eta Mads Mikkelseni ez dio ile urdinduak kalterik egiten. Barne oreka, sosegua, konfiantza azpimarratzen dute. Erronka zaila da, leunki esateko, hiriko afixetan irudi horren emakumezko baliokidea topatzea. Bestalde, falta zaizkigun irudi horiek produzitzea industriari dagokiola pentsatzeko bezain inozoa ere ez naiz.



Antton Olariaga

Ohitura kontua besterik ez da, ez dut uste gizonezkoak hobeto zahartzen direnik. Gainbehera erabili baitut goian, baina zahartzeaz hitz egiteko eufemismotzat har daiteke kasu honetan. Gazte izateari utzi eta zahar bihurtu arteko bidean, gainbehera horretan, zahartze bilakaera horretan, nahi izanez gero, *heldutasuna* aurki genezake. Fruituetan, aldirik gozoena eta elikagarriena da. Susmoa dut sarritan gizonezkoak modu naturalagoan heldu izan direla aldi horretara. Eta naturaltasun horren puska bat oraindik irabazteko geratzen zaigula emakumeoi. (Adi, badaezpada ere errepikatu egingo dut alderdi fisikoaz ari naizela).

Milaka eta milaka gazte gerretan hiltzen ari diren bitartean, munduaren beste inguru batzuetan hasita daude pertsonengan zahartzaroa gelditu eta gazte bihurtzeko saiakerak egiten. Odol gazteari esker sagu zaharrak suspertzea posible dela frogatuta omen dago honez gero. Ez daukat bat ere argi noren eta zeren interesean ari diren ikertzen.

Gurea bataila txikia da, gizonezkoek boterea duten gizarte baten egiturekin talka egiten duena. Maitasun erromantikoak gizonezko eta emakumezkoen arteko amildegia handitu baino egiten ez duela uste duten feministek ez bezala, Eva Illouz soziologoak patriarkatua barrutik eraldatzeko indarra ere aitortzen dio maitasun horri. Maite gaituenak, maitasunak berezko dituen ezaugarrietatik abiatuta, garen bezala onartzen gaitu, gure hobe beharra bermatzen laguntzen digu. Finean, gure berdintasunerako borrok(et)an aliatua izateko erantzukizuna du.

Lehenengo, ispiluak bueltatzen digun irudia daukagu. Kanpoan, bakardadetik at, besteek bueltatzen diguten irudia heltzen zaigu. Besteak ere, ispilu ditugu baina. ■

Gure baitako demokrazia

Inma Errea
ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA
@inmaerrea

Garai batean, arrunta zen izen bera ematea familia bereko seme edo alaba bati baino gehiagori. Jakina, gero bazekiten moldatzen bereizteko, adibidez, izen bereko bi semeak: Juan txiki eta Juan handi deitu, eta fini! Orduan, banakoak eta banakoen aferak ez ziren gaur bezain muntadunak.

Egun, pentsaezina da halako zerbait gertatzea. Gure gizartean, indibidualismoak garrantzi handia hartu du, eta toki handia egiten diogu –handiegia– banakoen egoari jardun sozialean.

Demokrazia guztion aferez erabakitzeko modu bat da, non guztien iritzia berdinki hartzen omen baita kontuan –hala dator definituta euskarazko Wikipedian–. Teorian hala izanagatik, gaur egun gure inguruneko demokrazia ordezkatzaileetan herritarrok, oro har, gure ordezkariak aldian behin hautatzera daukagu mugatuta gure eragina, guztion aferak erabakitzeko orduan. Banako gisa, oso inportanteak omen gara, baina afera kolektiboetan daukagun indarra ez da beharko genukeen bezain handia.

Azkenotan, ugaldu dira aldarriak eta bultzadak herritarron partaidetza (erreferendumak eta bestelako prozesu partizipatiboak) areagotzeko, eta hori ona da lau urtean behingo hauteskundeetan parte-hartzearen langa gainditze aldera. Dudarik ez dago, norabide hori da egokiena aurre egiteko demokrazia urardotzen duten fenomenoei –lobby ekonomikoen presioei, kasu–.

Baina nago ez dugula aski horrekin.

Herritar batek erakunde batean kargu bat hartzen duenean, zoriondu egiten dugu. Ez dakit, ordea, jokaerarik hoberena den. Egokia da, dudarik ez, zori ona opatzea haren jardunean, baina zoriontzeak aditzera eman dezake sari bat irabazi duela, zor zitzaion merezimenduzko sari bat, eta kargua hartzeak hartzailea handi(ago) bihurtzen duela.

Eta kargu publiko bat –beti, izendapenezkoa izan edo administrazio-karrerakoa– ez da sari bat, baizik eta herritarrei zerbitzu egiteko (lan)postu bat. Eta zerbitzu egiteko postu bat denez, ardura bat darama berekin, herritarrei ahalik eta hobekien zerbitzu egiteko ardura, eta horregatik egokiagoa iruditzen zait, inork halako kargu bat hartzen duenean, pertsona horri eskertzea –ez haren egoa hanpatzeko, baizik eta ohartu dadin hartu duena ardura dela, eta ez saria!– ardura hori –errepublikan (*res publica*-n, ororen gauzetan) aritzeko erantzukizuna– hartu izana, herritar arrunt izatetik herritarren zerbitzari izateko urratsa egin izana.

Gure baitan pentsamolde hori errotuz gero, gertatzeko zailagoak bihurtuko genituzke, adibidez, ustelkeria bera eta, batez ere, ustelkeria onartzeko jaidura. Demokrazia sakonagoa izanen litzateke, helduagoa, osatuagoa. ■

Tentagarria

Edu Zelaieta
IDAZLEA

Tentagarria iruditu zaio, praktika ez-zientifikoa bada ere, parekidetasunaren aldeko urratsak eman dituzten estatuak auto-matrikularen arabera neurtzea. Izan ere, etxetik kanpo egindako azken oporraldia baliatuta, P-dunetan gidari doazen emakumeen kopurua E-dunetan gidari doazenak baino apalagoa dela ikusi du; hala berean, F-dunetan eta GB-dunetan doazenak E-dunetan baino gehiago direla ohartu da.

Tentagarria iruditu zaio unibertsitateko irakasle-ikertzaileari, hilero jasotzen duen jornalak halako praktika ez-akademikoak babesten ez baditu ere, parekidetasunaren aldeko urratsak matrikulaka sailkatzea. Izan ere, familia kasuetan bereziki, joera nabaria da nork daraman lema, nork hartzen duen rol aktiboa (eta nork ez), noren eskuetan jartzen diren autoan doazen guztien biziak.

Tentagarria iruditu zaio, lagina eta metodoa estandarrak ez badira ere, matrikuletan ikusi uste duen errealitatearekin ondorioren bat ateratzea. Izan ere, bolanteari heltzen dioten esku gehienak, matrikularen letra larria gorabehera, gizonenak dira: gizon zuriagoak, gizon beltzaranagoak, gizon zaharragoak, gizon gazteagoak; hots, lau gurpiletan ere, bi hankatan bezala, gizona nagusi. ■

Gorrotoa modan

Rosa Martin Sabaris
EHU-KO IRAKASLEA

Gorrotatzaileak. *Hater* izena dute orain. Marketineko txerpolarien ele-meleak liluratuta, honela izendatzen dute euren burua. Ondo dakitelako izatea ez dela nahikoa, eta gaur izana iragartzeko, izena baino, marka da behar dena. Eta honela diote: "*Hate*-a gustatzen zait", "*haterra* naiz", "*hate*a irakurtzen dut". Sentimendua bokazio, afizio edo lanbide bihurtuta.

Soyunapringada, Youtuben marka guztiak apurtzen dituen marka da. Lehen aldiz entzun nuenean, zur eta lur geratu nintzen. Hitzik gabe, kontraesanez betetako zurrunbilo batean harrapatuta: canon, arau, estilo eta gustoen aurkako eraso nazkagarri eta zakarra batetik, baina... zein ondo ulertu nion *Mr. Wonderful* aipatu zuenean, zenbat egia berba zantarren artean.

Mr. Wonderful edo positibismoaren diktadura. Derrigorrezko alaitasuna, agindutako baikortasuna. *Yes-we-can* sartu ziguten buruan, eta sinistu egin genuen. Gure seme-alabei, gure gazteei, etxean, kalean, ikasgeletan... Mundu guztiak posible direla irakatsi diegunean, ondo egin dugu utopiako bandan gindoazelako, ameslari. Baina... ez genituen behar bezala prestatu porrotak, galerak eta damuak etorriko zirenerako.

Motibazioaren errezeta-liburuak eta ikastaroak nonahi: umeen arreta erakartzeko, lankideak bizkortzeko, bikotekidea irabazteko, norbere burua asetzeko, adiskideak mantentzeko eta irakurleak eta ikus-entzuleak ez galtzeko. Gehiegizko motibazioaren ostean, positibismo betekada gorroto dutela diote. Eta gorroto hori ez da sufrimendu ikaragarriaren ondorioa, gehiegizko desioak eta itxaropenak alferrik galtzearen emaitza baizik. ETB1ek *Asko gorroto zaitut* telebista saioa estreinatuko zuela irakurri nuen duela urtebete, baina ez dut inoiz ikusi. Ez dakit eman den ala ez, gezurra den ala ez, gorrotoari beldurra izan zioten ala ez.

Gorrotoak batzen omen gaitu. Gorrototik amodiora urrats bat baino ez dagoelako leloari eutsiz, *Hater* izeneko aplikazioa atera berri dute: antzeko zaletasunen ordez, kideko gorrotoak dituztenen artean bikotekidea bilatzeko tresna

Gorrotoak batzen omen gaitu. Gorrototik amodiora urrats bat baino ez dagoelako leloari eutsiz, *Hater* izeneko aplikazioa atera berri dute: antzeko zaletasunen ordez, kideko gorrotoak dituztenen artean bikotekidea bilatzeko tresna. Gorrotoa, amodioaren giltza, *haterrak* direla harrotasunez aldarrikatzen duten gazte eta ez-hain-gazteen artean. Mundua mundua denetik, gorrotoa eta gorrotatzaile bikainak egon izan ez balira bezala.

Gorroto-delituetatik harantzago, hiperkontsumismoaren garaian, gorrotoa bizitza-estiloa dela sinestarazi nahi digute. Beldurrak eragindako gorrotoa. Bizitza, lanpostua, bikotekidea, etxea... Galtzeko beldurrak eragindako gorrotoa bakarrik senti dezake guzti horiek dituenak. Estiloa eta estilismoa, hori da *hater* hauen dantza-aretoko gorrotoa. Benetako sufrimendua eta benetako gorroto arriskutsuak ilunpean ezkutatzen dituena. ■

Milioi erdi pertsonarengana iritsiko dira galdeketak

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN JAUZI ERRALDOIA

Xabier Letona
@xletona

Datorren maiatzaren 7an 50 herritako 285.000 herritarrek Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko aukera izango dute. Edo zehatzago esanda, zer nahi duten bozkatzeko aukera: euskal errepublika, independentzia, Espainian jarraitzea… Erabakitzeko eskubideaz egin den inoizko kontsulta handienaren aurrean gaude.

Iragan martxoan herritar bat botoa ematen Oarsoaldean.
ARGAZKIA: GURE ESKU DAGO

Orain arteko galdeketetan 301.245 lagunek izan dute beren botoa emateko aukera eta horietatik ia %28k eman du berea, 83.350 pertsonak (%95ek) Espainiatik bereiztea bozkatu dute eta %3k bertan jarraitzea. Datorren igandeko galdeketekin, beraz, ia milioi erdi herritarrek bozkatu ahal izango dute Gure Esku Dagok (GED) antolatutako kontsultetan. Ez dira ofizialak, jakina denez, baina borondate politikoa adierazten dute, eta hori da edozelako izaera konstituziogileren oinarria.

2013an sortutako erakunde honek argi du gaur gaurkoz euskal instituzioek ezin badute halakorik galdetu, beraiek egingo dutela lan hori, noizbait instituzioek egin dezaten, hori baita GEDen benetako helburua. Edozein modutan, ohiko hauteskunde prozesuak alde batera utzita, euskal gizartean izan den mobilizazio jarraitu handienetako baten aurrean gaude, eta hori oso kontuan hartu beharko dute erabaki eskubidearen aldeko zein kontrakoek. Are gehiago Katalunian bizitzen ari den egoerarekin.

Autogobernu lantaldea

Autodeterminazioa, independentzia edo euskal herritarrek erabakitzeari buruzko hainbat ekimen abiatu dira azken hamarkadatan euskal gizartean eta bidean geratu ere bai. Batek ere ez du lortu oraingoaren adinako herritarren inplikaziorik.

Eta hala ere, Gure Esku Dago ez da garaiotako ezaugarri indartsuenetakoa den ziurgabetasunetik libratzen: Zertarako? Unea ote da? Ba al da behar adinako indarrik? Nortzuk? Nola? Giltzarri diren uneetako ohiko galderak dira.

Besteak beste, GEDek lortu du 2.000 pertsona lanean jartzea bere taldeetan, hainbat joera politikotako pertsonak biltzea ere bai, elkartearen esanetan. Asko da. 2014ko giza kate arrakastatsuaren muinean aldarrikapena festa giroan zen, ildo beretik jarraitu nahi izan zen estadioetako ekitaldiekin, baina ez zen guztiz asmatu eta ez zuen horren zapore onik utzi. Galdeketen olatuak bestelako arrastoa uzten ari dira, besteak beste aldarrikatzetik gauzatzera egin delako.

Ekainaren 10ean GEDek giltzarritzat jotzen duen Herritarren Ituna aurkeztuko du, indar subiranisten gizarte proiekzioan jauzi garrantzitsu bat eman asmoz. Datorren urtean olatuekin jarraituko da eta ura hiriburuetara iritsiko da lehenbiziz. Guztiarekin, besteak beste, Eusko Legebiltzarrean jorratzen ari den autogobernu batzordearen edukian eragin nahi du modu erabakigarrian: onartzen den testuak bildu dezala bere baitan erabaki eskubidea.

Eta ez da zalantzarik une klabea bizi daitekeela autogobernuaren esparruan, Eusko Legebiltzarra Gernikako Estatutuaren erreformaz ari delako eta hori Madrilera eraman dezakeelako gutxieneko adostasunak erdiesten badira. Gutxieneko adostasunak noren artean eta zertarako? Horra hor zalantzaren muinak. Besteak beste, EAJk aukeren artean aipatu du Madrilera eraman aurretik testua EAEn kontsultara eramatea, horrela Madrilek euskal gizarteak zer nahi duen jakingo lukeelako.

Konfiantza eza

EAEko esparru instituzionalean gertatzen ari denarekin, alabaina, euskal gizarteko hainbat sektore sozial eta subiranista uzkur ageri da jeltzaleen jarrerarekin. Azken asteetako ELAren eta EAJren arteko hika-mika gogorrak dira horren erakusgarri. Joxe Elorrieta sindikatuko idazkari nagusi ohiak ere argi adierazi du bere azken liburuan: EAJk orain ez badu prozesu subiranistarik nahi, zergatik tematzen dira besteak horretan? ELAk ez du indar harremanik ikusten horretarako eta ezkerreko indar subiranisten aliantza proposatzen du erabaki eskubidea eta eguneroko borroka sozialak aurrera ateratzeko, aurrera begira uneren batean indar kontserbadoreagoak behartuko dituelakoan, batez ere EAJ.

EAJ neoliberalismoan eta Madrilekiko bilateraltasunaren eskeman ikusita, ELAri gaitza iruditzen zaio baldintza horietan burujabetza metaketarik egitea. Funtsean, Eusko Legebiltzarreko 75-57 erabaki eskubidearen aldeko gehiengo teorikoa espejismo bat iruditzen zaio, are gehiago Eusko Jaurlaritzako legealdiko lehen aurrekontuei begira EAJk, PSEk eta PPk lortutako akordioaren ondoren. 2016ko azaroan jada, Manu Robles Arangiz ELAren fundazioko lehendakari Xabi Anzak galdera zorrotzak jaurti zituen bere blogean: “Nork emango dio albiste txarra unibertso abertzaleari? Nork esango dio behingoz batuketa abertzalea ezin dela izan estrategia subiranistaren abiapuntu?”.

GEDek zailtasun gehiago ere baditu, EAJren sektorerik subiranistena samurrago hurbiltzen zaio, baina alderdian nagusi dena erakartzea gehiago kostatzen zaio, eta horretan sakondu behar du Andoni Ortuzar eta Iñigo Urkulluren erabakietan eragin ahal izateko. Bistan da, zenbat eta herritar gehiago –tartean jeltzaleak–, eragina handiagoa izango da.

Antolaketarako indarra sumatzen da euskal gizartean, zeresanik ez prozesu subiranistari eragiten dion halako gai batean. Baina bistan da konfiantzarik ez den lekuan gaitza dela konplizitateak eraikitzea, edozelako indar metaketan ezinbestekoa den osagaia, izan nazio eraikuntzaren alorrean, izan burujabetza sozialaren esparruan. ■

Mario Zubiaga, EHUko irakaslea

"Burujabetza sozialerako indar metaketa eta Gure Esku Dago ez daude kontrajarriak"

EHUko irakaslea da Mario Zubiaga, euskal nazionalismoa eta erabaki eskubideari lotutako gaietan aditua. Aldi berean, Gure Esku Dagoko idazkaritzakoa ere bada. Euskal gizartea erabaki eskubideari buruzko horren une esanguratsua bizitzen ari den honetan, bere begirada bereziki da interesgarria.

IÑIGO AZKONA

Nola baloratzen dituzu orain arte herrietan izandako kontsultetako emaitzak?
Aldaketa kualitatiboa baloratuko nuke lehenik. Gure Esku Dagon bultzatutako galdeketetan tranbertsalitate hori garrantzitsua izaten ari da herri guztietan. Artekaritza lana ere hor dago, desmobilizatuak eta deslotuak dauden sektoreak mobilizaziora ekarriz eta oso ekintza zehatzera: hau da, kontsulta batean ezezagun bati –ez baita ofiziala– zure datuak ematen dizkiozu eta zer nahi duzun adierazi.

Alor kuantitatiboaz zer balorazio egiten duzu?
Herri ekimen batetik abiatuta, erroldaren %25etik %30erako parte-hartzea lortzea izugarrizko arrakasta da. Kontu hauei buruz dakienak badaki hori. Madrilgo Udalak antolatzen du halako kontsulta bat eta ez da %5era iristen, Sevillakoa %6ra.

Zuk idatzitako *Excepción compartida – Salbuespen partekatua*– artikuluan honako galdera egiten duzu hasieran: "Une konstituziogile batean gaude ala indar metaketari ekin behar zaio eta denbora hobeagoei itxaron?". Non gaude?
Galdera hori egiten diet estatus politiko berri bat ekarri nahi duten eragile politikoei. Sumatzen dut ikuspegi subiranista duten alderdi eta sindika-

IÑIGO AZKONA

tuek uste dutela oraindik ez dela unea makina subiranista abian jartzeko. Ezker abertzalea aurreko zikloa ixten ari da oraindik eta, besteak beste, barne berrantolaketa egiten ari da. EAJn ziurrenik zalantzak daude ataka honi aurre egiteko unean: Jauzi subiranistarako unea al da? Arriskuan jarriko al dugu daukaguna autogobernu maila handiago bat lortzeko? Oro har, Katalunian zer gertatzen denari begira daude, eta gero gerokoak.

Nola ikusten duzu indar subiranisten inplikazioa erabaki eskubidearekin?

Dagoeneko indar subiranistek sumatu dute Gure Esku Dagok bide orri bat duela eta, Katalunian bezala, gure agintari politikoekin batera agenda bat osatzeko nahia dagoela. Datozen bi urteetan Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldeak oinarri batzuk finkatu behar ditu eta hortik estatutu berri baterako proposamena atera liteke. Ez bada ezer egiten hor aterako dena bakarrik parlamentuko indar harremanen fruitu izango da. Batzuek ez dute inoiz errepikatuko Ibarretxeren ibilbidea, eta Madrilera badoaz onartzeko moduko testu batekin joango dira. Herritarren aldetik presiorik ez badago, hori da eszenatoki logikoena.

Kontrajarrita al daude ELAk planteatzen duen burujabetza sozialerako indar metaketa berria eta Gure Esku Dagoren egungo dinamika?

Ez dut uste. Batzuek kontrajarritzat jotzen dituzte eta pentsatzen dute Gure Esku Dagok oso oinarrizko planteamenduak dituela, lausoegiak. Erabakitzeko eskubidea ez da arlo bakar batera mugatzen, filosofia sakona du atzean, herritarren burujabetzaren aldarria. Paradigma aldaketarekin batera, indar metaketa zabala erdiestea denean jomuga, diskurtso erradikalago batek jende gehiago erakarriko duela uste dugu? Momentu historiko honetan kontua ez da gutxieneko abanguardia bat sortzea, independentismo argia, diskurtso sozial alternatiboa, kontraboterea landuko duena... une hau indar metaketarena da. Gizartetik abiatutako tresna subiranista indartsu baten bilakaera ezin da aurreikusi, parte hartzaileen esku dago.

Joxe Elorrietak bere azken liburuan esaten du ezinezkoa dela prozesu subiranistarik egitea neoliberalismoa eztabaidaren erdigunean jarri gabe.

Neoliberalismoa erdigunean jartzeko modu asko daude, horietako bat neoliberalismoari kontra egiteko pedagogia egitea da, eta ez diskurtso klasiko eta oso ideologizatuekin. Gure gizartean agintzen duen elitea neoliberala da, baina ez dut uste gure gizartearen gehiengoa neoliberala denik eta bilatu behar da gehiengo hori erakartzeko diskurtso bat. Erabakitzeko eskubidea, bere sakonean, neoliberalismoari aurre egiteko diskurtsorik eraginkorrena da.

Badira gai gatazkatsu asko herrietan, adibidez Gipuzkoan Zubietako errauskailua, edo justizia sozialaren ingurukoak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta… horiek alboratu behar dituzte Gure Esku Dagoren kideek?

Gure Esku Dagoren oinarrizko agirian –*Eskura* dokumentuan– eta orain abian dagoen Herritarron Itunean marko bat planteatzen da eta honek oso garbi uzten ditu helburuak zeintzuk diren: gauza guztiez erabaki nahi dugula. Marko orokor horrek guztiontzako balio du eta guztiei ematen die aukera haien plataforma propioa garatzeko. Gure Esku Dagok 2.000 bazkide inguru ditu, herri askotan ditu taldeak, konfiantza batzuk eraiki dira... horrek merezi du konfiantza bat eta edukiz bete daitekeen bilakaera baten aukera ez baztertzea.

Maltzagako izpiritua berreraikitzeko ahalegina ere ikusten dute askok.

Honek ez du zerikusirik Maltzagarekin. Hori eliteen prozesua da: bateko zein bes-

teko eliteak bildu, negoziatu, adostu eta gero jendeari esan. Lizarra-Garazikoa ere hori bera zen, eliteek adostu eta jendea begira. Gure Esku Dago herritarren mugimendua da eta bakoitzak duen inplikazioaren arabera garatuko dira bere ezaugarriak, ez daude aldez aurretik finkatuta.

Galdeketek jende mobilizazio handia ekarri dute, baina hala ere ez da tentsiorik nabaritzen. Egin daiteke tentsiorik gabeko prozesu subiranistarik?

Hau prozesu dinamiko bat da. Argi dago giza katetik ona Gure Esku Dagok presentzia politiko handiagoa duela, baina oraindik tentsiorik gabe, tentsioa indar posizio bat lortzen denean pizten delako, herritarren borondatea errespetatzen ez dutenekin lehian.

Galdeketak, Ituna... eta gero?

Tresnak herri-dinamika berak definitzen ditu aldiro. Ezin dugu ahaztu beste errei batzuk ere badaudela zabalik, esaterako, Eusko Legebiltzarreko ponentziak izango al du kontsulta ahalduntzaile bat? Hau da, testu artikulatua onartzen denean, gero Madrilera joan behar da. Bada, agian komeni zaigu aurretik kontsulta bat eginda joatea, nahiz eta hori ez dagoen legean aurreikusia. Gizarte ekimena erabakitzailea izan daiteke abagune horretan. Katalunian hala izan zen azaroaren 9an.

» Gure Esku Dagok ez du zerikusirik Maltzagarekin. Hori eliteen prozesua da, Lizarra-Garazi bezala. Gure Esku Dago herritarren mugimendua da eta bakoitzak duen inplikazioaren arabera garatuko da

Erreferenduma egin egingo da, baina Madrilekin negoziatutako estatutu berri baten ingurukoa.

Autogobernu ponentziatik atera daiteke zerbait, baina ez ditut gure indar subiranistak ikusten hortik zerbait atera daitekeela pentsatzen, iruditzen zait aldez aurretik galdutzat ematen dutela gudu hori. Iritzi erabat pertsonala da hau, noski. Dagoeneko esaten duzu hemendik bi urtera onartuko den dokumentutik ez dela ezer aterako? Hori borroka bat galdutzat ematea da, zure indarretan konfiantzarik ez izatea eta, gainera, nolabaiteko ihesbide bat: "Ez, neoliberalak dira eta ni neoliberalismoaren aurka nago, guk gure indarrak tenkatu behar ditugu eta bost-hamar urte barru ikusiko dugu zer egin".

Azkenean, 1978ko eztabaida berdina da. "Mendira" joateko modu asko dago, eta ez da ezinbestekoa horretarako borroka armatura jotzea. Nire kezka da batzuek une honetan "mendira" jotzeko tentaldia izan dezaketela, artikulazio zabalei muzin eginez. Batzuk borroka luze batetik datozelako, besteak eroso daudelako beren autonomian... orduan mendira. Une honetan eztabaida estrategikoetariko bat hor egon daiteke. ■

❱ Elkarrizketa honen bertsio luzea www.argia.eus-en joango da, astekariko 2.552 zenbakian.

MUNDUKO VODKA ONENETAKO BAT ARABAN EGITEN DA, %100 BERTAKO PATATAZ

Etxeko helduenekin ikasi zuten eta gaur egun ogibide dute patatarekin vodka egitea Jose Luis Navarro, Carlos Ortiz de Zarate eta Eduardo Martinez de Murgiak. Europan egiten den vodkaren %1 baino ez da patatatik sortua. Aldiz, hirukote honek %100 Arabako patataz egiten du edaria. Bi urte besterik ez baditu ere, munduan ezagun egin da Basmoon izeneko vodka.

Irati Sarasua Arabaolaza
@iratisarasua
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Arabako Fontetxa herrian, Euskal Herriko gainerakoetan bezala, ohikoak ziren Gerra Zibileko kontakizunak. Baina bazen zehazki herri horri loturiko pasarte berezi bat. "1936an Italiako tropak egon ziren bertan, Antonello Favro gerrillaria euren artean, eta herrian edateko askorik ez zutela-eta herritarrei patatarekin vodka egiten irakatsi zien", kontatu digu Jose Luis Navarrok. Garai hartan, sukaldeko soberakinak erabiltzen zituzten alkohola sortzeko eta gero belarrekin eta frutekin nahasten zituzten edangarria izateko.

Amona Hilariak kontatu zion hori haurretan Navarrori, sukaldeko mahaiaren bueltan. Carlos Ortiz de Zarate eta Eduardo Martinez de Murgia lagunek ere etxean izan zuten horren berri. Haurtzaroko lagunak dira, udak Fontetxa herrian pasatzen zituzten hirurek. Aitona-amonek inoiz ez zuten pentsatuko eurek kontatutako historiak gazteen etorkizunean hainbesteko eragina izango zuenik, egun Basque Moonshiners enpresako jabeak baitira hiru lagunak. Nabarmentzen dute bereziki Tomas Ortiz de Zaratek, Carlosen aitonak, izan zuela proiektuan eragina. Garai hartako destilatzeko alanbike tresna zahar bat topatu zuten duela urte gutxi herrian, eta lagunei bide honi ekiteko ideia sortu zitzaien.

Moonshiners-ak AEBetan lege lehorraren garaian vodka era ilegalean egiten zutenak ziren, eta orain, legearen barruan egiten badute ere, hiru lagunak dira Euskal Herriko Moonshiners-ak. "Gauza onak gozatzeko arriskuak hartzea ezinbestekoa" dela diote. "Guk patatarekin alkohola etxean askotan egiten genuen, eta duela 5-6 urte proiektu honi bueltaka hasi ginen, eta vodka egitearen abenturari ekin genion, arriskatu egin ginen eta gozatzen ari gara", dio Navarrok.

Patata eta eskuak oinarri

Bi berezitasun ditu eurek eginiko edariak. Batetik, alkohola bertako patatarekin egiten dute, %100 Arabako patatarekin, Agria izeneko motarekin. Almidoi asko du eta hori alkohol maila handiagoa lortzeko lagungarria da. Garai batean Polonian vodka gehiena patatarekin egiten bazen ere, zerealarekin egiten da gehienbat gaur egun,

Jose Luis Navarro destilazio prozesua hastear.

Jose Luis Navarrok Basque Moonshiners-en egiten dituzten edariak erakutsi dizkigu.

BASMOON VODKA EGITEKO URRATSAK

– Agria izeneko patata freskoa erabiltzen dute. Patata horia da, almidoi askokoa, %20 ingurukoa.

– Zuritu.

– Errotatik pasa. Patata txikituta eta pasta eginda geratzen da.

– "Sakarifikazioa" egin. Almidoia azukre bihurtzen da, 10 orduren ostean.

– Legamia gaineratu 20 gradutan, tanke batean.

– Fermentazio prozesua egin. 5-6 egunen buruan mustioa lortzen da, 6º-7º inguru izaten ditu.

– Lehenengo destilazioa egin eta geratzen den patata kendu. 80º inguruko alkohola izaten du momentu horretan.

– Jarraian 4 aldiz berriro ere prozesu bera egin. Horregatik diote euren edariak 5 destilazio dituela. 96º dituen oinarrizko alkohola lortzen dute horrela.

– Bi asteren ostean, oinarrizko alkohola mineralik gabeko urarekin nahastu. Hala, alkohola 41,5ºra jaisten da.

– Hotzean filtratu. Beste askok beroan egiten dute, ikatz aktibatuarekin.

– Botilaratu.

bereziki zikirioarekin. Orain, Europan %1 soilik egiten da patatarekin, beraz, hori bada berezitasun bat. Bestetik, hiru lagunak artisauak direla esan genezake, eskuz egiten baitute prozesu osoa. Eurek sortzen dute alkohola eta hori ez da ohikoa, ez Euskal Herrian, ezta kanpoan ere. Patata iristen da biltegietara, baina edari garden irteten da Basque Moonshiner-setik. Prozesu osoa destilategian egiteak ere egiten du berezi.

Euskal Herrian vodka edateko ohitura handirik ez dagoela nabarmendu dute. Gipuzkoa eta Nafarroako edalontzietan ikusi liteke gehien, baina ez da aski zabaldu orain arte. "Gure helburua ez da Euskal Herria. Bertan saltzen dugunetik bizi beharko bagenu proiektua ez litzateke bideragarria", adierazi du. Horregatik, kanpora begira egiten dute lan. Euren produkzioaren salmenten %50 baino gehiago Espainiako Estatutik kanpo egiten dute. Bereziki Alemanian, Polonian, Erresuma Batuan eta Belgikan saltzen dute. "Herrialde horietan vodka ezagutzen dute, ez diezu nola egiten den azaldu behar, hemen, aldiz, ezezaguna da oraindik", azaldu digu Navarrok.

» Chacal izeneko produktua kaleratu zuten duela hilabete, %100 garagarraz egina. 2019ko udan Nafarroako maltaz eginiko whiskya merkaturatuko dute

Basmoon, produktu nagusia

Patatarekin eginiko vodkaren izena horixe da, Basmoon. Bost destilazio ditu eta hotzean filtratzen dute. Hori da merkaturatu zuten lehen edaria, baina Chacal izeneko produktua ere kaleratu zuten duela hilabete inguru, %100 garagarraz egina. Eta aurrera begira, produktu berriak merkaturatzeko lanean ari dira. 2019ko udan Nafarroako maltaz eginiko whiskyak ere bere lekua izango du biltegian. "Produktu bereziak egiten saiatzen gara, denek egiten

dutena egingo bagenu, jai genuke", dio moonshinerrak.

Follow yourself da euren lema, "zure erara egin", horretan saiatzen dira. Gustatzen zaien hori egiten dutela nabarmentzen dute, egiten dutenarekin gozatzen dutela, garai batean bezala egiten dutela lan eta modan dagoen horri ez diotela erreparatzen. "Badakigu orain marrubiekin eginiko vodka egon litekeela modan, baina ez da hori egin nahi duguna, egiazko gauzak egin nahi ditugu, garai batean egiten zituzten moduan".

Munduko 29 vodka onenen artean

Patatarekin eginiko produktuak kritika bikainak jaso ditu, jada bi domina dituzte hiru lagunek. 2014an merkaturatu zuten, eta kaleratu eta hiru hilabetera Londresko Global Master lehiaketara aurkeztu eta Europako vodka premium onenaren saria irabazi zuten. Eta iaz, San Frantziskon, munduko lehiaketa onenean, 29 domina eman zituzten, eta horien artean eurek jaso zuten bat.

Hastapenetatik sariak lortu badituzte ere, oraindik hasiberriak direla diote eta ibilbide luzea izatea amesten dute: "Oraindik buruan ditut izan genituen elkarrizketak, alkohola egitearen munduan sartu nahi genuen hiru lagun ginen. Merkatua aztertzen aritu ginen eta ikusi genuen vodka zela munduko edari alkoholdunen artean lehena, gainera hemen ez zuen inork egiten, eta aldiz, garagardoa edota ardoa egiten zuten asko zeuden. Hori ere abantaila iruditu zitzaigun, beste askok ederki egiten zutenez, bide berri bati ekin nahi izan genion". Hasieratik argi zuten euren helburua ez zela prezioan lehiatzea, kalitatearen lehia nahiago dute. Horregatik, produkzio txikiak egiten dituzte, baina guztia tentu handiz zainduta. 15.000 botila saldu zituzten iaz, eta aurten bigarren produktu bat merkaturatu dutenez, 25.000-30.000 botila saltzea dute helburu.

Haurtzaroko hiru lagunek bidea argi ikusi badute ere, etxekoek ez zuten hasieran hain argi ikusi, erotzat hartu zituzten, esaterako, Navarrok ordura arteko lana utzi zuenean amesten zuen bideari ekiteko. Baina irribarretsu eta harro ikusten ditu gaur egun gurasoak, sukaldean etxeko helduenei adi-adi entzundako historiek semeari zabaldutako bideari begira. ■

Fronte Nazionala: hondamendia zena normalizatu da

Zundaketek informazio kuantitatiboa ematen badute, ez dute elementu kualitatiborik salatzen. Frantziako lehendakaritzako hauteskunde hauetan omnipresente diren zundaketen arabera Marine Le Pen izanen da bigarren itzuliko galtzailea. Xenofobiari emandako erantzuna, parte-hartzea, Emmanuel Macronen erakargarritasuna, sistema politikoaren sinesgarritasuna... Hainbat elementuk determinatuko dute galtzea porrota ala zaplaztekoa izanen den.

Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Komunikabideek eta zundaketek asmaturiko eta parte batean eraikirikoa atera zen Frantziako presidentzialetarako lehen itzulitik. Marine Le Penen garaipena behin eta berriz errepikaturik, gehienek zuten haien irudimenean Fronte Nazionalaren (FN) bigarren itzulirako urratsa. "Bigarren itzulian oztopatzeko, parean nor hobe?" ala "zein da gutxien okerrena?" izan ziren anitzen galdera estrategikoak, *vote utile* delakoa. Komunikabideak eta zundaketak entzunez gero, parean daukan Emmanuel Macron izanen da Frantziako presidente berria maiatzaren 7ko gauean. Lehen zundaketen arabera, botoen %60 eskuratuko luke bere burua ez ezkerreko ez eskuineko daukan hautagai liberalak. Sorpresa txarrik ez ukaiteko merezi du ordea, zifren atzean dagoen errealitateari begiratzeak.

FN normalizaturik

Komunikabideek eta zundaketek eskuz esku egin lanak ekarri du FNren garaipenaren normalizazioa. 2017ko apirilaren 23an ez da egon 2002ko apirilaren 21eko beldurra ez eta kexua. Behin eta berriz errepikaturiko emaitzaren gauzapena irentsi dute herritarrek, daukan zapore txarrari kasurik egin gabe. Ohitzen hasiak direlako. Oroit gara, 2002an lortu zuela lehen aldiz, Jean-Marie Le Penek bigarren itzulirako txartela, parean zuela eskuineko Jacques Chirac. Egiari zor, sorpresa, baina komunikabideek segurtasun-gabezia gaiari eman garrantziari so eginez gero, aurreikusi zitekeena. Aldi honetako lehen itzuliaren biharamunean ez da egon eskuin muturraren mehatxuak akuilatu mobilizaziorik; ez da egon orduan bezain beste FN oztopatzeko behar gorriaren mezurik. Etsenplu argiena botoen %19,6 bildu duen ezkerreko Jean-Luc Mélenchonek eskuin muturra oztopatzera ez deitu izana. 2002ko lehen itzuliaren biharamunean, izan ezkerreko ala eskuineko, esanguratsuak izan ziren komunikabideen lehen orriak: "*Non*" *Libération*-ek, "*La bombe Le Pen*", *France Soir*-ek, "*Les leçons d'un désastre*", *Le Nouvel Observateur*-ek... Halakorik ez aldi honetan; *L'Humanité*-k izan ezik, gehienek lehenetsi dute mezu informatibo hutsa, arras gustuko duten Macronen aurpegia jarriz lehen orrian. Ez da gehiago ohartarazten FNk dakarren xenofobia. Bigarren itzulian Jacques Chirac atera zen garaile, Jean-Marie Le Pen urrun gelditu zelarik botoen %17,5arekin. Hori erranik ere, berdina gertatuko dela pentsa daiteke.

Porrota ala zaplaztekoa?

Nahiz eta kalean xenofobiaren aurkako mezurik ez zabaldu, aurreikusi daiteke botoaren bidez entzunaraziko dutela. Baina garrantzizko galdera da jakitea porrota ala gaitzeko porrota bilduko duen Le Penek. Eskuin-muturreko hautagaiarentzat porrota eta zaplaztekoa ez delako berdina. %20 ez delako %40. Gerora, benetako garaipenerako bidea irekiagoa luke porrotarekin, baina, hein berean geldituko litzateke zaplaztekoarekin, hots, azkar baina hozka bat ezin pasaz. "Denak dira berdinak" sentimendua edota Macronek irudikatzen duen finantza munduaren errefusa kontuan harturik, Le Pen blokeatzeko pausoa emanen al dute eskuin-muturra nahi ez duten bozkatzaile guztiek maiatzaren 7an? Batez ere, Macronen garaipen argiaren mezua hamabost egunez entzun ondoren. Ala, "dena dela Le Pen ez da pasako, nireak ez du deus aldatuko" ideia lehenetsiko dute. Abstentzionismoaren heinak ukanen du eragina.

Ipar Euskal Herrian beti gora

Alta, emaitzak hor dira, eskuin-muturra indartsu da, aurrekoetan baino indartsuago. Eskuin-muturreko diskurtsoarekin aritu diren François Fillonen (%20,01) eta beste hautagai ezezagunagoen bozkatzaileak ere

Ipar Euskal Herriko botoen %12,10 bildu ditu Le Penek, orotara 21.738 boto. Duela bost urte baino 2.271 boto gehiago.

hor dira. Bost bozkatzaileetarik bat bereganatu duen Fillonek Macron bozkatzera deitu arren, ez dute bere aldeko guztiek behatuko (Gay eta lesbianen ezkontzaren aurka osatu Sens Commun mugimenduak sostengua erakutsi zion Filloni, bigarren itzulirako ordea ez du bat egin Le Pen oztopatzeko deiarekin). 7,7 milioi boz bildu ditu Le Penek, 1,2 milioi gehiago eskuratuz bost urtetan.

Ipar Euskal Herrian laugarren indar atera izanak ez du erran nahi indartuz ez doanik. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako botoen %12,10 bildu ditu, orotara 21.738 boto. Duela bost urte baino 2.271 boto gehiago. 2012an zuen zinezko emendioa egin, bikoituz bere indarra. Izan mendi aldeko herrixka ala kostaldeko hiri, bozkatzaile berriak konbentzitzen segitzen du. Adibidez, Bankan 24tik 28ra pasaz, Ezpeize-Ündüreinen 37tik 48ra, Maulen 150tik 160ra, Donibane Lohizunen 892tik 961era, Baionan 2.485tik 3.068era. Ez da FNren aldekorik egon ez den herririk. Botoak galdu dituen herriak ere badira (Ziburu, Baigorri, Atharratze…), baina orokorki gora doa FN Ipar Euskal Herrian.

Langileria klasea

Anitzek ez dute haien ordezkari ikusten Macron, finantza mundua irudikatzen duen hautagaia, businessmen/womanen eta komunikabide handien laguna. “Sistemaren hautagai”-tzat jotzen du Le Penek eta hala denik ezin uka. Kategoria sozio-profesionalen araberako mapa bi hautagai horien botoen maparekin alderatuz gero, kasik elkarren gainean ezarri daitezke: klase ertain-altukoen kokagunean nagusitzen da Macron, Le Pen haatik langileriaren kokagunean. “Errepublikak ahantzirikoei” zuzentzen zaie Le Pen, sentimendu hori dutenen arreta ederki lortuz eta kalifikatzaile horren barnean sentiarazi geroz eta gehiago jende. Langileria du gutxienik konbentzitzen Macronek. Ipar Euskal Herriari doakionez, fenomeno hori ez da baieztatzen: Mélenchon gailendu zaio Le Peni, botoen %19,19 lortuz. Langileria klase azkarreko Maule hirian adibidez, lehen indar atera da, %26,46 lorturik, eta Bokalen berdin, %29,48 eginez.

» Ez da Ipar Euskal Herrian FNren aldekorik egon ez den herririk

» “Eliteen sistemaren”, “terrorismo islamistaren” eta “mundializazio basatiaren” aurkako mezuak dira Le Penen armak

Kolonia ohietan lehen

Ahantziak izanaren sentimendu bera dute DOM-TOM haraindiko departamendu eta lurralde izendaturiko Frantziako kolonia ohietan. Botoen %21,9 lorturik, lehen aldiz boto gehien bildu duena da FN. Abstentzioa izan da sentimendu honen isla, %53 ez da bozkatzera joan eta horrek ahalbidetu du Le Penen garaipena. Bost urtetan, bikoiztu baino gehiago ditu emaitzak. Inguruko uharteetatik etorri etorkinei erantzun behar dion Mayotten %2,8tik %27,3era igo da bost urtetan FNren emaitza!

Ateak hestearen mezuak lilura sortzen du Frantzian bezainbat DOM-TOM batzuetan. “Eliteen sistemaren”, “terrorismo islamistaren” eta “mundializazio basatiaren” aurkako mezuak ditu arma gisa Le Penek. Dakielako gai horietan Macronek kontraeraso eraginkor bat entzunarazteko ahultasuna duela. ■

AntzerkHizkuntza

LOTSAK AHAZTUTA, EUSKARARA HURBILDU

AntzerkHizkuntza proiektuan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako neska-mutilak euskaraz hitz egitera ausartzeko bitartekoa da antzerkia. Bilboko Ave María ikastetxean B eredua dute eta urteak dira antzerkia baliatzen dutela.

Dabi Piedra

Gaur egun, nerabe askok ikasgelan dute euskararekin harreman bakarra. Maiz, gainera, norabide bakarreko komunikazioa da: irakasleak euskaraz, ikasleek erdaraz. Edo bestela, isilik, beren euskara traketsa delakoan, erdaraz erosoago baitaude. Gazteei konplexuak gainditzen laguntzera eta modu ludikoan euskararen erabileran eragitera dator AntzerkHizkuntza proiektua. Irakasleak ez ezik, ikasleak ere pozik uzten dituen metodoa da, kurtso amaierako inkestak aintzat hartuz gero.

Bakoitzak bere buruaz duen pertzepzioa hobetzea eta konfiantza sendotzea dira AntzerkHizkuntzaren oinarriak. Proiektuaren koordinatzaile Garikoitz Lasak azaldu digunez, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Bigarren Hezkuntzara arteko ikasleekin lan egiten dute. Adin horretan, gazteek beren burua oso zorrotz epaitzen dute, lagun-taldean integratzea funtsezkoa baita. Erdaraz erosoago aritzen direnek nahiago izaten dute euskara baztertu, ingurukoen aurrean barregarri geratu baino.

Konplexu horiek gainditzeko tresna aproposa da antzerkia: gaitasun linguistikoak ez ezik, norbere buruaren kontrola lantzen da, talde-lana baloratzen ikasten da eta lotsa galtzen da. AntzerkHizkuntza klase orduetan lantzen dute. Ikasturtean zehar, astero ordubete eskainita, antzezlan bat prestatzea da neska-mutilen zeregina. Garikoitz Lasak argi eta garbi dio antzerkia ez dela helburua, bitartekoa baizik. “Denek antzezlanaren parte izan nahi dutenez, oso motibatuta egoten dira eta horrek euskararen aldeko jarrerak hartzera eramaten ditu. Guk nahi dugu haiek konturatu gabe ikastea, ondo pasatuaz”.

2009an ekin zioten egitasmoa eskolaz eskola eramateari. Bilboko Txurdinaga auzoko Berritzeguneko arduradunak esan zien proiektu ona zela, baina normalean halakoak ingelesa lantzera bideratzen direla. “Euskara teknikari hori euskaltzale sutsua da eta egitasmoa euskaraz mantentzeko eskatu zigun, –oroitu du Lasak–. Eta hala eutsi diogu, proiektu hau hizkuntza normalkuntzarako pentsatua da, eta euskarazkoa izango da beti”. Orain arte, Bizkaian landu dute (Barakaldon, Bilbon, Erandion, Igorren, Sopelan…), baina Arabara eta Gipuzkoara hedatzeko prest daude.

Giro euskalduneko zein erdalduneko ikasgela izan, ekimen eraginkorra da, euskaraz ondo hitz egitea ez baita parte hartzeko baldintza, euskaraz hitz egiteko gogoa baizik. “Batzuek erdarara jotzen dute, eta guk euskarara bideratzen ditugu, –dio Lasak–, ahalegina eskertzen diegu, errefortzu positiboaren bidez, euskaraz zein ondo ari diren esanez”.

Lasak onartu du, gramatikan behintzat, askorik ez dietela irakasten. “AntzerkHizkuntzan gauzak oker esan daitezke”, euskaraz esatea da kontua. Lasak eta bere kideek ere ez dute euskara jasoa erabiltzen ikasgelan, hizkera “probokatzailea” baizik, erdarakada eta guzti. “Nik ez dut eredu egokia izan nahi, eredu baliagarria baizik”. Behin euskaraz hitz egiteko ohitura hartuta, egongo da astia hobetzeko.

Gaitasunak lantzen

Orain arte euskaraz hitz egiteko gogorik izan ez duen ikaslea nola erakartzen du AntzerkHizkuntzak euskarara? Motibazioa eta inplikazioa dira giltzarriak. Ikasgelan gogaituta egon beharrean, astean ordubete jarduera dibertigarri bat egiten pasatzeko aukera ematen die antzerkiak. Denek parte hartu nahi dute, eta horretarako euskara behar dute. Lotsak ahazteko ingurune egokia da gainera: “Beren burua probatu dezakete besteen aurrean, baina esparru babestuan”.

Ikasleen artean egundoko aldeak daude, euskara mailan eta jarreran:

Imanol Canales irakaslea: "Batzuetan, ikasleek gidoia ahaztu eta inprobisatu egiten dute. Horrek kezkatu egiten ditu, baina irakasleok pozez hartzen dugu, euskaraz inprobisatu dutelako, hori aurrerapausoa da!". Argazkian, Bilboko Ave María ikastetxeko ikasleak saio betean.

ARITZ LOIOLA

lotsatiekin eta zaratatsuekin ezin da berdin jokatu. Lehenengoei diren bezalakoak agertzen laguntzen diete, taldearen onarpena sentitzen; bigarrenei ingurukoak errespetatzen irakatsi behar diete. Koordinatzailearen esanetan, ikasturteak aurrera egin ahala, nabarmen hobetzen da taldearen kohesioan eta kide guztien konfiantzan. Horrek eragin positiboa du euskararen erabileran, baina onurak ez dira linguistikoak soilik, ikasleentzat probetxugarriak diren beste zenbait alor ere hobetzen dira. Taldean lan egiteko gaitasuna, esaterako.

Helburuak betetzeko, ezinbestekoa da talde bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea. Tutorearen lana garrantzitsua da; AntzerkHizkuntzako kideek eta tutoreek etengabeko komunikazioa dute. "Hasieran, tutoreek ikasleen inguruko informazioa ematen digute. Adibidez, ikasle bat lotsatia dela esaten badigute, modu indibidualean esku har dezakegu".

Era berean, ikasleak hobeto ezagutzeko bidea da tutoreentzat. "Irakasleari tresna bat eskaintzen diogu, taldea ahoz nola moldatzen den entzuteko aukera dute, askotan euskara idatziz baino ez dutelako landu ahal izan".

Ave María ikastetxearen esperientzia

Bilboko Ave María ikastetxean aspaldi hasi ziren AntzerkHizkuntza lantzen. Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, B ereduan, irakasle dabil Imanol Canales Arrasate, eta kurtso hasieratik amaierara ikasleen jarreran igartzen den aldea nabarmendu du. Ave María bezalako ikastetxeetan, halako proiektuak oso lagungarriak dira. "Euskaraz jakin gabe heltzen diren zenbait etorkin ditugu, gainera B eredua da gurea eta, beraz, ikasleek kontaktu gutxi dute hizkuntzarekin", azaldu du Canalesek. "Uste dut ikastetxeko euskara maila gora doala urtetik urtera eta AntzerkHizkuntzak badu zerikusia".

Euskararen erabilera indartzeko programazioan AntzerkHizkuntza sartzea erabaki zuten, baina abantaila gehiago ere aurkitu dizkiote Ave Maríakoek: "Taldeen kudeaketan eta gorputz espresioan aurrerapenak dakartza", –dio Canalesek–. "Batzuetan, ikasleek gidoia ahaztu eta inprobisatu egiten dute. Horrek kezkatu egiten ditu, baina irakasleok pozez hartzen dugu, euskaraz inprobisatu dutelako, hori aurrerapausoa da!".

Beti ezin dira helburuak bete, Garikoitz Lasak aitortu du talde aldrebesak ere suertatzen direla. Baina, oro har, esperientzia positiboa izaten da. "Zoragarria da irakasle batek esaten dizunean ikasle hau edo hura hobera aldatu dela", dio Lasak. Ikasleak ere pozik aritzen dira. "Hasieran, askok ez dute antzerkirik egin nahi, baina ikasturteak aurrera egin ahala inplikatu egiten dira eta amaieran, egindakoaz harro daudela esaten digute". Halakoak entzutea "ekaineko paga estra" da AntzerkHizkuntzakoentzat.

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza, helburuak lekuan lekuko errealitatera egokitzea da gakoa, Lasak azpimarratu duenez: "Guk ez dugu miraririk bermatzen, baina urtero gertatzen dira. Oso ikasle gutxirentzat pasatzen gara oharkabean". ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**

hernani
ERABAKIDECIDE
Herritarrok 4. urtez erabakiko dugu
udal aurrekontuaren 500.000 euro zertan inbertitu
erabaki.hernani.eus
Hernaniko Udala

Abel Barriola Ezkurra, pilotaria

"JENDEAREN ARRETA BUKATUKO DA, BAINA HORI AZKEN FINEAN EGOA DA"

38 urterekin eta horietatik 19 profesional aritu ostean, Leitzako pilotariak agur esan die frontoiei. Bolada batez eskuko lesioek kantxatik aldendu bazuten ere, Buruz burukoa, Lau T'erdikoa eta Bikotekakoa irabaztea lortu dutenen klubekoa da Barriola (Retegi II, Arretxe I, Martinez de Irujo, Olaizola II, Urrutikoetxea eta Bengoetxea VI.arekin batera), baina batez ere, jokalari eta pertsona maitatua da atzelaria. Maiatzaren 7an du azken hitzordua zaleekin, Donostiako Atano III pilotalekuan.

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi
ARGAZKIA: IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

Bilbo, Leitza, Iruñea, Eibar… Zer moduz doa despedida-*tourra*?
Ez dugu enpresak eta biok antolatu, bidean atera den zerbait izan da: hainbat federaziok agur partiduak nahi zituzten frontoi batean eta bestean, eta egia da une hunkigarriak bizitzen ari naizela. Sentimendu asko dago tartean.

Urteotan guztiotan, zaleen errespetua eta miresmena irabazi dituzu, oso pilotari maitatua eta estimatua zara. Hala sentitzen al duzu?
Maitasuna beti nabaritzen da. Pilotan oso polita da txapelak irabaztea, horretarako egiten dugu borroka, baina nire ibilbidetik zerbait aukeratu behar izanez gero, gehien betetzen duena zaleen errespetu hori da, maitasun hori. Asko eskertzen diet eman didaten babesa.

Kontratua luzatzeko aukera zenuen, baina uztea erabaki duzu. Dena ez da dirua…
Ez, dena ez da dirua. Jakina dirua inportantea dela, nik ere gustuko dut, baina horren gainetik beste gauza batzuk daude. Denak du hasiera eta bukaera, eta niregatik lehenengo eta pilotazaleagatik bigarrenik, nire bizitza izan den pilotak merezi zuen momentu onean uztea, goi mailan uztea. Erabaki oso zailak dira, baina naturaltasunez hartu beharrekoak; jakin behar da ibilbide bat bukatzen eta beste norbaiti tokia uzten.

Eliteko kirola uztea eta bizimodua guztiz aldatzea gaizki daramate batzuek. Andoni Imaz futbolari ohiak hala esan zigun: "Famara eta dirura ohitu gara urte askotan, eta bat-batean diru-iturria eten egiten da eta fokuak itzali, ez zara maitatua sentitzen".
Beste alde hori, pilotaren ondorengo bizitza, oraindik ez dut ezagutzen, baina bizitzari aurre egiteko gauza asko irakatsi dizkit pilotak, eta trantsizioa egiteko prest nagoela iruditzen zait. Badakit frontoiak faltan botako ditudala, baina aldi berean oso pozik begiratzen diot etorkizunari. Profesionalki beste lan batean hutsetik hasteak kezka sortzen didan arren, ilusio ikaragarria daukat beste zerbaitetan hasteko. Jendearen arreta bukatuko dela eta telebistan ez naizela aterako? Ados, baina hori azken finean egoa da, eta kirolak pertsona eta pertsonaia ezberdintzen ere irakatsi dit.

Xala bezala Asperen aurka epaitegietan ikusiko al zaitugu orain?
Ez, arlo guztietan bukaera ona eman nahi diot pilotari, baita enpresarekiko harremanean ere. Kontu horrek pena eman dit, Xala pilotari ikusgarria izan delako eta amaiera hori ez dut uste ona denik, ezta pilotarentzat ere. Beraien artean zehatz zer daukaten ez dakit, lan kontuetan gertatzen diren gauzak dira batzuetan eta espero dut bi aldeentzat konponbide on bat lortzea.

"Kirol profesionalean beti izango dira lesioak, zure gorputza limitera eramaten duzulako eta modu batera edo bestera hausteko aukera gehiago dituzulako".

» "Bizitzari aurre egiteko gauza asko irakatsi dizkit pilotak eta trantsizioa egiteko prest nagoela iruditzen zait"

» "Xala pilotari ikusgarria izan da eta amaiera hori ez dut uste ona denik, ezta pilotarentzat ere"

» "Enpresek kirolarioi edota zaleei zuzenak iruditu ez zaizkigun erabakiak hartzea gertatu da, eta ondorioz kexatzea; balio dezala horrek pilota hobetzen jarraitzeko eta kirol irizpideek lehentasuna izateko"

» "Behin entzun nuen apusturik ez egitea tontoena dela, eta gehiegi egitea, eroena"

Zuri ere entzun izan dizugu Ligaren funtzionamenduari buruzko kexaren bat edo beste. 2011n esaterako, ezin izan zenuen Bikotekako finala jokatu, lesio batengatik eskatutako atzerapena ez zizutelako onartu. Zenbat aldiz asaldatu zara, Enpresen Ligaren erabakiekin?

Pilotan bakarrik ez, lanbide guztietan daude hobetu beharreko kontuak. Enpresek kirolarioi edota zaleei zuzenak iruditu ez zaizkigun erabakiak hartzea gertatu da, eta ondorioz kexatzea; balio dezala horrek guztiak pilota hobetzen jarraitzeko eta erabakiak hartzerako orduan kirol irizpideek lehentasuna izan dezaten.

19 urtetan, asko aldatu al dira gauzak? Adibidez, eta beste kirol profesionalekin alderatuta, modernizatzen eta egokitzen jakin al du pilotak materialean, prestakuntza fisiko eta psikologikoan… ala tradizioari lotuegi ikusten duzu?

Ez dut uste aurrerapenak eta tradizioak bide ezberdinak eraman behar dituztenik, aurrerapen oso onak egin daitezke tradizio batzuk mantenduz eta beste batzuk ez. Urteotan, pilotaria bera, entrenatzeko modua, prestakuntza fisikoa, elikadura... berdin mantendu dira, baina bai aldatu dira adibidez materiala (pilotak askoz azkarragoak dira orain), eskuen babesa (makina bat tako mota duzu gaur egun) edota osasunari lotuta fisioterapia, ebakuntzak...

Babesa eta fisioterapia hobeak izan arren, lesioak ez dira desagertu.

Kirol profesionalean beti izango dira lesioak, zure gorputza limitera eramaten duzulako eta modu batera edo bestera hausteko aukera gehiago dituzulako. Ezin da esan kirol profesionala %100 osasungarria denik. Eliteko kirolaren parte da eta nik uste kirolaria horretarako mentalizatuta dagoela. Hobekuntzak batez ere errekuperazioan eta errehabilitazioan egin dira.

Tradizioak mantentzeaz ari ginen. Apustuen tradizioari eutsi dio pilotak; mundu arriskutsua ez al da?

Bizitzako plazer guztien moduan, neurria da gakoa eta bakoitzak ikusiko du non dagoen muga. Behin entzun nuen apusturik ez egitea tontoena dela, eta gehiegi egitea, eroena.

Urteotan aldatu ez den beste zerbait: Asegarce eta Asperen esku dago Liga. Enpresa gehiagoren parte-hartzeari ateak ireki beharko al lizkioke eskupilotak?

Zenbat eta enpresa gehiago izan eta zenbat eta irekiago, orduan eta positiboagoa da pilotarentzat. Enpresak ez daude dirua galtzeko eta logikoa ikusten dut enpresek dirua irabazi nahi izatea, baina bai, polita eta onuragarria litzateke merkatua irekiagoa izatea.

Pilotak azkarragoak direla aipatu duzu. Espektakulutik gehiago al du pilotak orain?

Pilota azkarragoak helburu horrekin sortu ziren, aurrelariek erremate gehiago eta gantxo eraginkorragoak egiteko. Alde onak ditu eta ez hain onak, adi-

Barriola 22 urterekin.

bidez eskuz banaka gaur egun botera jokatzea ezinezkoa da; nahitaez airez jokatu behar duzu. Izango dira zaleak duela 20 urteko jokamoldea nahiago dutenak eta aldiz beste batzuk egungoa gustukoago dutenak, baina lehengo pilota eta oraingoa ez dira hain ezberdinak eta biak ere espektakularrak dira.

Aurten Emakumeen Master Cup txapelketa jokatu da lehen aldiz. Aurrerapausoa, emakumeen eskuzko pilotan?

Dudarik gabe. Lehengoan pilota eskola batean izan nintzen eta neska dezente ari ziren bertan. Poza eman zidan; kirol honetan neska eta emakume gehiago ikustea oso positiboa da bai pilotarentzat, bai gizartearentzat.

Duela 10 urte elkarrizketatu zintuguneko zure hitzak: "Lehiakortasuna tartean denean, lagun minak izatea zaila da". Lagun minik eramango al duzu aldageletatik?

Bai, asko. Normala da irabaztera zoazenean aurkariaren eta bion artean lehiakortasuna sortzea, baina lehiakideak lagun bihurtzen dira gero, eta pilotatik daramadan gauzarik politena hori da: nirekin eta nire aurka jokatu duten kideak, etorkizunean mantenduko ditudan lagunak.

Aldagelez ari garenez, dirudiena bezain euskalduna al da pilota? Euskaraz mintzatzen al zarete zuen artean?

Oro har bai, pilotari gehienak euskaldunak garelako eta euskara dakigunon artean euskaraz aritzen garelako. Azken finean, euskal kirol bat da, euskaldunak elkartzen gaituen kirola. ■

Kalean da maiatzeko

aizu!

- Biharrian, pertsonentzako hirigintza
- 20. Korrika iruditan
- Ane Santesteban, arin-arin
- Euskalduntxarrak uhinetan
- Aragoiera: auzoko hizkuntza ezagutzen

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

OZEANO EZ HAIN **BAREAN** GALDUTA

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Coruña, 1525eko uztailaren 24a. Zazpi ontzik osatutako espedizioa abiatu zen, Moluka uharteak helburu. *Santa María de la Victoria, Sancti Spiritus, Anunciada, San Gabriel, Santa María del Parral, San Lesmes* eta *Santiago* ziren karabelak eta horietako lau Bizkaian eginak ziren. Molukei Espezieen Uharteak ere esaten zitzaien eta horixe zen espedizioaren xedea. Karlos V.ak han eta hemen piztutako gerrak ordaintzeko diru premia zeukan, Juan Sebastian Elkano getariarrak Ozeano Barera Amerika Hegoaldetik joan zitekeela frogatu berri zuen eta, hala, erregeak berehala agindu zuen diru-sarrera oparoak ekarriko zizkion abentura. Garcia Jofre de Loaisa (1490-1526) gaztelarra zen espedizio burua, eta Elkano bera haren bigarrena. Ez zen euskaldun bakarra; haren hiru anaia Elkanorekin joan ziren, baita beste asko ere: Gebara, Areizaga, Urdaneta, Uriarte, Gorostiaga...

Zazpi ontzietatik bi berehala hondoratu ziren eta hirugarren bat mutinatu eta Iberiar penintsulara itzuli zen. Beraz, lau karabela iritsi ziren Ozeano Barera. *Santa María de la Victoria* bakarrik iritsiko zen Moluketara. Magallanes itsasartea pasa eta berehala, beste ekaitz batek ontziak sakabanatu zituen eta *San Lesmes*, nagusiki euskaldunez osatua, betiko galdu zen. Robert Langdon historialari australiarrak

WILLEM JANSZOON BLAEU

Moluka Uharteetako eskala handiko lehen mapa. 1640an egina, iparraldea eskuinean duena. Mende pasatxo lehenago euskaldunez josita ko espedizioa abiatu zen Moluketara.

The Lost Caravel lanean jaso zuenaren arabera, ordea, ontzia ez zen hondoratu eta marinelek arrastoak utzi omen zituzten Polinesian eta Zeelanda Berrian. XVII. mendean Domingo Bonaetxea getariarrak nahiz Cook kapitainak topatu omen zituzten arrasto horiek: mendebaldeko ezaugarriak bertako zenbait aurpegitan, agur esateko modua, itsasoan orientatzeko metodoak... Eta Bonaetxeak gurutze bat ere ikusi omen zuen.

Espedizioa irten eta urtebetera, 1526ko uztailaren 30ean hil zen Loaisa, eta handik astebetera, Elkano bera. Toribio Alonso de Salazar Enkarterrietako diruzaina izan zen haien ordezko eta irailaren 5ean Lapurren Uharteetara –egungo Marianak– iritsi zen. Magallanesen espedizioko kide bat topatu zuten han, ezustean. Gonzalo de Vigo galiziarra zen, biluzik zegoen, "ilea ipurmasaietaraino" iristen zitzaion eta bertakoen hizkuntza ikasia zuen.

Espedizioa abiatu eta hamaika urtera itzuli zen lehen marinela Iberiar penintsulara: Andres Urdaneta ordiziarra zen. ■



Edison eta tatuajeak

Thomas Alva Edisonek (1847-1931) 1.000tik gora patente lortu zituen. Batzuk oso ezagunak: fonografoa, bonbilla goriak, kinetoskopioa... Beste batzuk ez hain ezagunak, hala nola, *stencil-pen* edo txantiloiak egiteko makina elektrikoa, 1876an patentatua. Gailuak papera zulatu eta zuloetan tintadun zigilua jartzen zuen. Kopiak egiteko balio zuen, baina, zenbait egokitzapen eginda, azala tindatzeko ere erabil zitekeen. Hala, tatuatzeko makina elektrikoaren aitzindaria izan zen Edisonen arkatza. Gainera, badakigu Edisonek tatuaje bat zuela eskuineko besaurrean, bost puntu soilek osatua, baina ez dakigu nola egin zioten. Bere buruari egin ote zion, asmakizunaren erabilera berria probatzeko? ■

Ipurtargiak etxera

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Maiatz ederrari ekin diogu. Konturatzerako bero sapa azaleratzen diguten urteko egun luzeenetan gara. Urteko gau motzenak izango dira orduan, baina ikuskizun paregabea eskaintzen dutenak. Ez naiz ari jai txolinenei adarrak ipintzen dizkieten su-festa zalapartatsuez. Isilagoak dira ipurtargiak.

Ipurtargiak kakalardoak dira, eta ehizatu nahi dutena erakartzeko edo bikotea limurtu eta hurbiltzeko gogoa pizteko, ipurtaldeko azalaren azpian oxidazio baten bidez argi kimiko hotza sortzen dute, bioluminiszentzia. Agidanean, 2.000 bat espezie ipurtargi dago munduan, eta bakoitzak bere argi frekuentzia eta piztu-itzali segida erabiltzen ditu. Hezetasuna dagoen tokietan ugariagoak dira, bertan jaki gehiago aurkitzen baitute.

Argi hotzeko dantza bero horren ondoren, emeak lurpean erruten dituen arrautzetatik jaioko dira ipurtargi kumeak. Goseak amorratzen jaio ere. Beldarrak, harrak, barraskiloak eta bare txikiak edo bare-sitsak dira haren jaki gustukoenak. Taktika aparta du: aurkitzen dituenean jariakin baten bidez paralizatzen eta atxikitzen ditu, bitartean jariakin horrek berak biktima barrutik digerituko du, gero ipurtargitxoak behar duenean lasai ederrean jan dezan.

HEINZ ALBERS-CC BY

Ipurtargi harra, barraskilo bat paralizatu eta jaten.

Ingurune aberatsaren adierazle dira ipurtargiak. Gero eta ipurtargi gutxiago ez al duzu ikusten? Eta gero eta har, barraskilo eta bare gehiago? Zure ingurunea gero eta ekologikoki eskasagoa dela esan nahi du horrek. Ipurtargien atzerakadak arrazoi ugari izan ditzake: intsektiziden erabilera harroa, gaueko argitasuna ugaritzea, hezetasuna urritzea...

Ipurtargiak inguratzeko ekin. Gaueko argiak itzali. Intsektizidarik ez erabili. Polena ere jaten dutenez, lore aukera zabaldu. Iturri edo putzu edo aska, ura jarri eskuera. Uraren ingurua ahal den eta naturalena eduki, "garbitu" gabe: basa edo lokatza, adar eta egur puskak, belarrak eta landareak bere horretan utzi bertan. Zuhaitz garaiak mantendu.

Japonian "Nazio Altxor" izendatua dute ipurtargia, kultur monumentu handienen parekoa, alegia. Tokitan dago gure kultura... ■

endanea garden
943 64 17 10
www.endanea.com
Jaitzubia 40, Hondarribia

Zapore naturalak
Etxean hazteko, jatorri ekologiko landare ugari eskaintzen dizkizugu. Zure platerak zapore eta kolore naturalez bete ditzazun.

Borraja Komandoaren matxinada Nafarroan

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

"Talde subertsiboa gara, produktu ekologikoak, mundua, edertasuna maite dituen taldea. Mundu hobeago baten alde oraintxe ekinean hasi nahi duen pertsona multzoa gara, ingurumenarekin konprometitutako taldea. Ez dugu geldirik egon nahi". Horrela hasten da Nafarroan sortu berri duten "Borraja Komandoa"-ren lehen komunikatua.

Apirilaren 22an, Ama Lurraren nazioarteko eguna zela eta, lehen ekintza burutu zuen taldeak Tuteran: hiriko lorategi bat hartu eta baratze ekologikoa egin zuen bertan.

Hitzetatik ekintzetara

Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak (NNPEK) Helianto taldearekin elkarlanean abiatu du ekimena, "Lorategiari eraso" programaren barruan.

Ekintzaren helburuak nekazaritza ekologikoa bultzatzea eta horren garrantziaz sentsibilizatzea izan dira.

Buru-berokiekin eta zapiekin estalitako hamabost pertsona inguruk hartu zuten parte Borraja Komandoaren lehen "erasoaldian". Erabilitako armak: letxugak, kuiatxoak, loreak, landare usaintsuak, tomateak, ilarrak, orburuak eta porruak. Tuterako lorategiaren transformazioan hiriko Lourdes auzoko Emakumeen Elkartearen laguntza ere jaso zuten matxinoek. Auzotarrei beren baratze propioa zaintzeko eta bertan haziko diren barazkiak erabiltzeko gonbidapena egin zieten komandoko kideek.

Hasiera besterik ez

Tuterakoa hasiera besterik ez dela izan argi azaldu dute ekintzaileek. "Nafarroako hiri eta herriak erasoko ditugu, ezerk ez gaitu gelditukо", diote komunikatuan. Espazio publikoak, lorategiak, nahiz errepide bazterretako lurrak baratze ekologiko bihurtuko dituztela adierazi dute, inork espero gabe, jendearen sorpresarekin jokatuz.

"Aski da. Amaitu dezagun itsusitasunarekin, degradatutako guneekin. Guk eraso egiten dugu, edertu egiten dugu, laidoztatutako guneei bizitza ematen diegu". Beraiekin bat egiteko deia egin die herritarrei taldeak, Nafarroako espazio grisei kolore berdea bueltatzeko lanean segitzeko. Ikusteke dago non jarraituko duen Borraja Komandoak bere matxinadarekin. ■

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

www.bizibaratzea.eus webguneko edukiak zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikuluak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: **bizibaratzea@bizibaratzea.eus**

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Maiatzaren 6an eta 7an: Idiazabal Euskal Gaztaren Azoka

Euskal gaztaia, euskal paisaia lemapean eta udalak antolatuta, lau oinarri landuko ditu: paisaia, ardi latxa, artzaina eta gazta. Larunbatean egun osoz eta igande goizez egingo den azokan Euskal Herriko gaztak eskuratu ahal izango dira.

Maiatzaren 6an eta 7an: Orendain Belarren erabilera ikastaroa

Clara Gutierrez Arana biologo eta etnobotanikan adituak emango ditu ikastaroak. Larunbatean *Familia botikina* landuko du eta igandean *Emakumeen zikloetarako landareak; nerabezaroa, hilekoa, menopausia*... Izenematea, 24 euroan, Orendaingo udalean: 943654064 zenbakira deituta edo agenda21@orendain.eus helbidera idatzita.

Maiatzak 6: Gasteiz Hazien sareak 20 urte

Olarizuko lorategi botanikoan, 10:00etatik 20:00etara, egun osoko egitaraua: mahai-inguruak, otordu ekologikoak, azoka eta haurrentzako tailerrak. Informazio osoa: www.haziensarea.org.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *KIMUTX LIBURUA* | 4

Izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz

KIMUTX proiektuaren asmo nagusia, zero-hamabi urte bitarteko haurrek, egunerokoko ekintza zehatz batzuk modu alaian, jostagarrian eta maitakorrean gauzatzen laguntzea da, burututako jarduerak Euskal Herriko kulturaren testuinguruan kokatuz. Horretarako, kantuan oinarrituko gara, batez ere, honek duen balioagatik eta ematen dituen onurengatik. Hala ere, helburua lortzeko hiru baliabide erabiliko dira; musika, doinu eta erritmo egokietan; hizkuntza, bai bertsotan, bai ipuinetan islaturik; eta irudiak. Haurrak munduari zabalik dauden pertsonak dira, eta beraien baitan daude gaitasun eta erantzun guztiak. Maitasunez beraien jardun askean oinarrituz esperientziak eskaintzen dizkion giro eta inguruneak sortuz, umearen erritmoa errespetatuz eta haurraren behar eta interesetatik abiatuta, ingurua ezagutzen lagunduko dion giroa sortzea da lan honen oinarrizko helburuetako bat.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

KIMUTX
Liburuak erosteko: www.argia.eus/denda
Liburuak ezagutzeko: www.kimutx.eu

#autoeraketa
#sormena
#hezkuntza
#kultura librea

Maiatzeko sariak

1

Kimutx liburuak
4 ale

2

Perlata taldearen diskoa
4 KD

3

Mugarik Gabe GKE
Bizitza Jasangarrietarantz
3 sorta

4

Bilboko Kafe Antzokia
(Zenbat Gara elkartea)
2 pertsonentzako bina bazkari

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

ARGIAko erredakzioak egun duen itxura. Komertzialak, kazetariak, komunitate arduraduna, webmasterra eta diseinatzailea elkarrekin eserita, mahaietan "nahastuta". Argazkia: Dani Blanco.

LEKU-ALDAKETA

Barruko harremanak estutzen

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ideia bat egin dezazun, irakurle: oporretatik bueltako lehen eguna. Kafe bat hartzeko astirik ere ez duzu izan oraindik jaiegunetako erritmoa aldatu ez duzulako, eta zuzenean zoaz lantokira. Han topatzen duzu guztia lekuz aldatuta, oraindik mailu hots bakan batzuk han eta hemen, ordenagailua non daukazun ere ez dakizula; baina esaten diozu zeure buruari: "bazen garaia hau egitekoa".

Lan lekuak eta mahaikideak aldatuta heldu diogu apirilari ARGIAn. Erredakzioa, administrariak, komertzialak, diseinatzaileak... lehen sailka banatuta zeuden bezala, nahastu egin gara orain. Lehen bi solairutan banatzen zen lantokia bakarrean kontzentratu da orain gehien bat. Baina zergatik?

Ziurrenik niri bezala gehienoi kazetariaren figura etorriko zaizue lehen kolpean burura egunkari edo astekari bateko lanaz galdetzean. Eta neurri batean normala, pentsatzen dut, gure eskuetara testu eta sinadurak iristen baitira. Astekari bat ez du, ordea, erredakzioak bakarrik ateratzen aurrera. Komertzialen eta administrarien lanik gabe zer egin? Hanka-oker geratuko litzateke proiektua. Batzuek idatzi egiten dute, informazioa zabaldu, proiektuaren paper publikoagoa jokatzen dute; baina diru iturriak lotzen ere jakin egin behar da, eta hor jokatzen dute partida nagusia beste batzuek. Eta zer egin administraririk gabe? Idazle eta intelektual koadrila honek gutxi daki ehuneko eta nominez! Errealitatean, baina, askotan distantziak sortzen dira lan batzuen eta besteen artean, eta batzuetan aldaketa fisikoak ematea ere garrantzitsua izaten da, betikotzeko arriskua duten muga ikusezin horiek puskatzeko.

Benetako lan-taldeak horrela sortzen ei dira, hala dio enpresen antolaketan aritzen den zenbaitek. Benetako lan-taldeak diziplina ezberdinetako jendea elkartuta sortzen direla. Eta hori da ARGIAren intentzioa ere, proiektu bera alde diferenteetatik elikatzen dutenak elkartu, nahastu, eta guztion artean tira egitea.

Lau pareta hauetatik kanporako harremanak zabaldu nahian gureak estutzen goaz. ■

Ikastolen Elkartearekin hitzarmena

Urteroko hitzarmena sinatzen ari dira argazkian Ikastolen Elkarteko lehendakari Koldo Tellitu eta ARGIAko lehendakari Bego Zuza. Sustapen trukea egiten dugu, ikastolen jaietan eta ARGIAko euskarrietan elkarren publizitatea jarriz.

Sarean arrantzatua

Susa literatura
@armiarma

[#hemeroteka] 1921eko apirilaren 24an #Argia astekaria sortu zen Donostian; 1936ra arte iraungo zuen.

Apirileko sarituak

- **Gorka Suaiaren diskoa:** Murua Garmendia sendia (Ordizia), Miren Iraeta (Ikaztegieta), Miren Josune Zamalloa (Galdakao), Iñaki Osoro (Eibar).
- **Globalizazio eta autoeraketa:** Lalo Etxeberria (Hernani), Blanca Beitia (Gasteiz), Jose Antonio Azpiazu (Leitza), Idoia Eskitxabel (Donostia).
- **Hand Made gerrikoak:** Lourdes Iruretagoiena (Zarautz), Xabier Argandoña (Bilbo)
- **Zeluloidezko izarrak:** Isabel Razkin (Uharte-Arakil), Pedro Azkue (Zarautz), Josu Diaz de Otalora (Usurbil), Patxi Xabier Gonzalez (Gasteiz)

Cabezafuego

"Esan nahi dudana ulertzea da nire obsesioa, indie-aren hitz kanpaitsuak ez ditut jasaten"

Iñigo Garces "Cabezafuego" iruindarrak bizitza erdia darama musika proiektuak sortzen. Half Foot Outside, Mermaid, Basque Country Pharaons, Royal Canal, Bizardunak, Atom Rhumba... Zerrenda bukaezina da. Azken urteotan Cabezafuego izenpean dihardu eta *Somos droga* bigarren lana kaleratu du, disko-komikia. Umore errealistaz jositako pop kantu biribilak ditu jomuga, etxeko sampler, teklatu zein ezusteko kolaborazioek "zikinduta" eta bere musika ezagutza zabal eta "bizarro"-ari keinu eginez.

Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Zerk pizten dizu musika egiteko garra? Etengabe ari zara proiektu berriak sortzen...

Musika egitea beharra da niretzat. Ez naiz inoiz idaztera jarri, gorputzak eskatzen dit. Jende zoragarria eta putakumeak ezagutu ditut, jende handiarekin batera jo dut... Geldigorra naiz eta egitasmo askotan sartzen naiz gero itota ibiltzeko. Horregatik orain proiektu gehienak utzi ditut, Cabezafuegotik ezingo naiz joan.

Nola idazten dituzu kantuak? Beti daude presente umorea eta nostalgia...

Nire betiko obsesioa da esan nahi dudana ulertzea. Indie-aren hitz kanpaitsuak ez ditut jasaten, ezta hainbaten poesia hutsa ere. Umorea oinarrizkoa da eta berezkoa dut. Eta nostalgiak ere pisu handia dauka. 40 urterekin, bizi izandakoa gaur egungo kontuez hitz egiteko aingura da; oroimen putzuak gara.

"'Talentua daukazu' esaten zidaten zurikatzaileek kalitatezko koka esnifatu ostean". Zein da abesti batek balio duenaren neurgailua?

Oso kritikoa naiz nire buruarekin. Orain jendeak kontzertuetan nire kantuak abesten ikusteak pozten nau. Sumision City Blues-eko Pelaren hitzak heltzen zaizkit, baina gutxienetakoa da. Aldiz, Señor Chinarroren zuzeneko batean 40 urteko gizon bat negarrez ikustea gehiegizkoa iruditzen zait. Eta gauza bera esango nuke Bob Dylanena balitz. Popa edo rocka dibertimendua da, ez besterik.

Ogibide hau erruleta da: Japonian biran Atom Rhumbarekin, plazak beteta Bizardunak-ekin, kontzertu txikiak...

Nire egunerokoa kontzertu txikiak dira. Japonian bost izarreko hoteletan izan ginen, jendetza kontzertuetan... baina astebetera Galizian jaialdi batean publiko gabe goizeko zortzietan jo behar izan genuen.

Diskoari *Somos droga* izena jarri diozu eta ez da topikoa esatea Mermaid-en garaian, esaterako, drogak oso presente zenituztela.

Bai. Harrotu egiten ginen, mutil guai eta drogadiktoen posea hartu genuen, eta nolabait funtzionatu zuen ezezagunak izatetik hedabideak guri kasu egitera pasa zirelako. Gure egunerokoa zen: 20 urte, egun erdiko lanak egiten... Eta egiten genuen musikak drogen eragina zuen.

Zer dauka agertokiak?

Ni OHOko 5. mailan txoratu nintzen: *playback* egiteko etxean nuen Demis Roussos-en single bat aukeratu nuen. Mahaietara igota, belauniko lurrera botatzen... hunkitu nintzen, jende guztia txaloka nuela lehenengoz sentituta, eta sortzen den elektrizitate eta energia hori. Baina kontu handia izan behar duzu, jendeak esaten dizunarekin distantzia hartu. Aldiz, asko pozten naiz

» “20 urte pasa ditut rock-and-roll disko guai bat egin nahian eta ez dut lortu. Hortaz, orain disko martzianoa egin dut”

gaztetxoek lepoko zaina bistan dutela esaten didatenean Bizardunak gauza handia izan dela, Eskorbutorekin guk bizitakoa gogorarazten didatelako.

Rock-and-roll patroia jarraitzeaz aspertuta zaude...

Rock-and-rolla entzuten dut, ez indie nazkagarririk, ezta zabor emozionalik ere. Baina 20 urte pasa ditut rock-and-roll disko guai bat egin nahian eta ez dut lortu. Hortaz, orain disko martzianoa egin dut eta oso gustura gelditu naiz. Zuzenekoetan, baina, nire pop doinuak rock-and-rollera eramaten ditut.

Diskoa etxean egiteak zerikusirik izan du?

Bai. Dani Uleciarekin (El Columpio Asesino) batera egin dut diskoa. Denbora luzea pasa dugu bion artean lantzen. Elkarte bezala eratuta dugun gure Color Hits! estudioan grabatu dugu; musikari ugari batu eta ezohiko gauzak egiteko gunea da.

Zein helbururekin jaitsi zineten Bizardunak menditik?

Taldea gaztetxotan sortu izan bagenu, erdiak hilik egongo ginateke eta besteak HIESarekin. Koadrilako lagunekin osatu genuen taldea eta hainbatek ez zuten esperientziarik. Koadrila afari handi bat zen, eta mahaiaren bueltako eztabaida gordinak musikara pasatzen genituen. Ikaragarri ondo pasa genuen.

Tradizionalistak deitu ohi zaituztegu, baina azken hamarkadatan euskal eszenan jaiotako proiektu apurtzaile eta ezohikoenak Nafarroatik etorri dira...

Hemen harrikada galantak sortu dira. Hiri berean Huajolotes, Los Bichos, Jugos Lixiviados, Bizardunak eta abar sortu izana oso berezia da! Nafarrok oso amorratuta gaude, ehunka eta ehunka urte pasa ditugu zapalduta eta, hala ere, oraindik ez gaude otzanduta: Erriberara jaitsi eta hango “bakaladeroak” basapiztituta daude; iparraldean ere antzera; eta Iruñea orain gutxi arte ez zen hiri bat, auzo bakoitza oihan bat zen.

Zer gelditzen da Half Foot Outside taldean musikan hasitako Iñigotik?

Ezta baxua ere, Atom Rhumbarekin Bartzelonan lapurtu zidatelako. Arratsalde osoa komisarietan pasa genuen baxu bat zer zer azaltzen, eta azkenean baxu heavy itsusi bat utzi zidaten.

Orduan bizkarrez jotzen hasi eta modan jarri zenuen.

Joder! Separatistas-en kontzertuetan jende asko haserretu zen! Ikusleen aurpegiak baino nahiago nuen Mikel Bap! eta Felix Buff bateria erraldoiak ikustea!

Horregatik bakarrik merezi zuen Separatistas sortu izana?

Merezi izan zuen egun bakarrean Bonberenean zortzi musikarik inprobisatzen 16 kantu sortu genituelako.

Half Foot Outside haurtzaroa izan bazenuen, Mermaid nerabezaroa eta Cabezafuego heldutasuna. Nolakoa izango da zure musika zahartzaroa?

R Stevie Moorekin txundituta nago. Zorakeri asko egiten dituen zahar bat da. Nahiko nuke putakume samarra den pop musika idatzi eta zuzenean aritu gabe kantuak sarean zintzilikatu.

Askotan komikiko pertsonaiatzat hartu zaitut eta orain komiki-diskoa kaleratu duzu.

David Molina marrazkilari madrildarra izan da sustatzailea. Proposatu zigun Huajolotes-ek *TMEO*n zuten zintaren antzeko bat egitea Bizardunak-en pasarte eta xelebrekeriekin. Ideia gustatu zitzaigun, pasarteak jaso eta marraztu genituen baina... ez genuen ezer egin. Gerora jai batera gonbidatu ninduen eta han egin nuen topo Mauro Entrialgo, Victor Coyote... eta beste batzuekin; eta nire kantuetan oinarrituta komiki bilduma egin dute. Disko-komikia beraiek sortutako Autsaider Comic eta gure artean kaleratu dugu. ■

ADEL 2017

AULESTI, ANTZERKIA LOTSARIK GABE

Hamabigarrenez segidan, Artedrama Euskal Laborategia (ADEL) gauzatu da Aulestin: antzerkilarien sare, zubi eta harrobi. Segidan datorren kronika, aurten ikasle aritu den baten bizipen pertsonala da.

Ion Olano Carlos
@sartuda

Lotsatuta iritsi nintzen Aulestiko lehen afarira, apirilaren 16ko iluntzean, aterpetxeko lagunarte berrira. Ez nuen inor ezagutzen, ezta inork ni ere. Lotsatuta nengoen, batetik, antzerkian erabat hasiberria naizelako, esperientziarik gabea ia. Eta bestetik, ikaskideei ez nielako hasieratik esan nahi kronika hau idatziko nuela, ADEL barrutik kontatuz ARGIArako. Ni, izatez, ez nindoan kazetari lana egitera, antzerkian murgiltzera baizik; gogotik saiatzera. Ohitura ezak ematen zidan lotsa. Hortaz, arituz baino ezin nuen hura hautsi.

Hamalau laguneko taldean hasi genuen astea, animalia lotsatien pare, Unai eta Garazi Lopez de Armentia anai-arreben eskola-ordu paregabeekin. Haiekin batera eman dugu aste osoan denbora gehien, gorputza esnatuz eta landuz –horrekin hasten eta amaitzen baita antzezlearen lana–. Arnasaren, zentzumenen eta erritmoaren bidez, bat egiten hasi gara apurka, norbera bere gorputzarekin, eta inguruaz jabetzen pixkanaka, taldekideen gorputzez, elkarrekin eragiten ditugun indarrez. Jolasean aritu gara, umeak aritzen diren seriotasunez. Yoga eta dantza pauso batzuk egin ditugu, edo gogotik saiatu bederen; hala, nekearekin batera sendotzen joan da, oharkabean, taldearen batasuna.

Goizeko eskolak amaitu eta segidan zetorren bazkalordua; bazkaldu, arnasa hartu eta ia segidan hurrengo eskola. Lau eta lau, egunero zortzi ordu inguru, sei egunez, egin kontu... Edonola, gustuz aritu garenez, ordutegi estuan atseginez estutu gara denok, norbera bere pausoan. Aritzearen poderioz, neurria ere hartu diogu erritmo bizi horri, Aulestiko kale bakarrean gora eta behera, atzera eta aurrera, lanetik atsedenera eta alderantziz. Baina, lehenengo egunean, ohiturarik gabe, ezustean harrapatu ninduen bazkalosteko eskolak: "Barregarri izateaz gozatu".

Pablo Ibarluzea clown eta pedagogoa zen irakaslea. Haren egiteko erak aztoratu nau, goitik behera astindu, barrenak mugiarazi eta pentsamendua irauli. Eta, aurreko hori esanda gezurra badirudi ere, izugarri gozatu dut. Ariketa praktikoen bidez, komentario zorrotzak eginez, ezin argiago erakutsi digu ideia bat: porrotari ez zaiola beldurrik izan behar eta, are gutxiago, barregarri geratzeari. Denok dugula ergel bat maskarapean –baita zuk ere, irakurle–, nolabait ezkutatzen saiatzen garen clown bat. Behin hura aurkituta, ikas dezakegula ergel horretaz harro

Astebetez antzerki-giroa izan da nagusi Aulestin. Argazkian, Ander Lipus antzezlan baten aurkezpena egiten. DANI BLANCO

egoten eta hura erabiltzen jendeari barre eginarazteko, hau da, plazer emateko. Izan ere, gauza zoragarria da erridikulua, beste batek egiten duenean.

Zubi eta harrobi

Zur eta lur utzi nau irakasleen jakintza mailak, baita haien lanerako gaitasunak ere. Denek ikasi eta lan egin izan dute Euskal Herritik kanpo, eta luxua da esperientzia horren fruituak euskaraz jaso ahal izatea herrian bertan. Esaterako, izan genuen azken irakaslea, Amancay Gaztañaga, benetan argigarria eta lagungarria izan zen. Ariketa zehatzen bidez, pentsamenduaren trabak topatu, eta haiek gaindituz testua nola gorputzeratu ikasten hasi ginen, hartara keinu espresiboaz jabetzen hasteko.

Maisu-maistra horiez gain, Iñigo Ibarra markinarra ere ezagutzen hasteko aukera izan genuen eskola orduetan, otorduetan eta abarretan. Iñigo da, hain zuzen, Ander Lipus aktoreari eta bere pertsonaiei bizitza ematen dien pertsona. Hura lanean ikustean, berarekin lanean aritzean, aiseago ulertzen dira hainbat gauza: besteak beste, zergatik arnasten den halako antzerki-giroa inguruan, eta zein lan funtsezkoa betetzen duen berak: lotura eraginkorra izatea, sareak jostea.

» Ikaskideen artean, egundoko talentua: ADELek argi uzten du hemengo teatroaren potentziala

» Iñigo Ibarra (Ander Lipus) lanean ikustean aiseago ulertzen da inguruan arnasten den antzerki-giro hau

Ikaskideen artean egundoko talentua eta gogoa nabaritu dut. ADELek argi erakutsi dit zera: antzerkirik onena egin dezakegula, batere lotsarik gabe, gauden lekutik, garen moduan. Norbera beretik, taldean nahiz bakarka, nolabaiteko sare askean betiere. Egin daitekeela antzerkia herrian, herriarekin eta euskaraz. Neronek gehien baloratu dudana, sakon-sakonean, azken horixe da:

AINHOA RESANO

Egun osoan ia etenik gabe aritu dira ikasleak antzerkiaren alor desberdinak lantzen.

antzerki arteetan egindako murgilaldi osoa, hasi eta buka, euskara hutsean izan dela.

Kalean sarea

Sarearen irudia izan dut kaskoan bueltaka aste osoan –zibernetikoa ez, bestea–. Aulestin denok izan gara bat, sare berean. Herritar gazteenetik zaharrenera, izan inguruko nahiz urruneko bisitari, askotariko langile, laguntzaile, antolatzaile... jakina, baita ikasleok ere. Sarean lotura guztiek betetzen dute, funtsean, funtzio bera: elkar jostea. Baina loturek ez dute zertan izan zurrunak eta giltzapekoak; izan daitezke lotura askeak ere, demagun, elkar ematen eta askatzen duten bi eskuren antzera.

Jakina denez, Aulestik kale bakarra du, baina ehunka bidek bat egiten dute bertan –metaforaz bada ere–. Zenbat eta bide gehiagok egin bat kalean, bistan da, sendoagoa da sarea. Honezkero sumatzen da urteetako lan metatuaren indarra: herrian erabat errotuta dagoenez, bertako antzerki giroari distira berezia dario. Aulesti ezagutzen ez zuen honek ere, ADEL zer zen zehatz-mehatz ez zekienak, berehala sumatu du hori. Nire ezjakintasunean, ideia orokor batekin ailegatu nintzen, intuizio apur batekin... baina jo eta aurreikuspen oro txiki-txiki utzi du bertan ikusi, entzun, eta bizi izan dudanak.

» Eta den-dena euskaraz: antzerki murgilaldi honetan hori ere baloratzekoa da

Eskola orduak amaituta, afaldu ondoren, iluntzero izan dugu euskarazko antzezlan bana –batzuetan bina– gozatzeko aukera. Ikasleontzat zinez interesgarria izan da gure irakasle eta bidaide izan direnek zuzendutako edo antzeztutako lanak oholtzan eta kalean ikustea. Ez nuen espero halako ilararik iluntzero, antzerki emanaldiak jendez beteta, gehienetan gainezka. Zenbait kasutan, eserleku berriak inprobisatu behar izan dira, ikuslego osoa aretoan sar zedin. Gainera, herriko Gazte Asanbladakoek egitarau alternatiboz osatu digute antzerki plana, emanaldi eta kontzertuak antolatuz gaztetxean eta plazan.

Antzezlan guztien kalitatea aipagarria da, baita proposamenen aniztasuna ere. Baina beharbada harrigarriena, zera: benetan ohartzen hastea euskal antzerkiak dituen aukera ugariez eta potentzial ikaragarriez. Egun, itzelezko maila egon badago, eta sekulakoa dator. Sasi guztien gainetik etorriko da betiere, euskaldunon diru publikoa kudeatzen dutenen interes faltari aurre eginez. Orain arte, tiriki-tauki, hutsari kolpeka, titiriteroek eurek atera izan dituzte aurrera harrobi txiki eta oparoak. Aulestiko honek, esaterako, honezkero eman du fruitu ugari, eta oraindik ezin igarri daiteke zenbat emango duen etorkizunean.

Bat (eta huts)

Astebetez bat izan naiz ADELeko talde osoarekin: elkar ezagutu dugu lanean eta aisian, nekean eta atsedenean, pozean eta desatseginean. Bat egin dugu, beti bat etorri ez bagara ere. Elkar lotuz eta elkar askatuz, esku askeen antzera, elkarren gogoa elikatuz eta edanez, arnasa hartuz eta elkarri emanez. Antzerki betekada galanta hartu dut egunotan, eta orain, hustasun sentipen berri batek hartu du nire gorputza.

Apirilaren 23a da gaur. Une honetan, astea amaituta, Aulestiko kale bakarra bakarrik zeharkatzen ari naizelarik, barrutik harro sentitzen naiz; lasai, azkenean. Lotsa hautsi dudalako astebetez, zubia zeharkatu, harrobian aritu, ohituraz ohitu. Gorputzean bilduta daramadan bizipen segida honek kemena ematen dit antzerkiaren bideetan ibiltzen segitzeko. Hemen ezagutu baitut herri ederra lanean, antzerkian ari dena lotsarik gabe. Ez dakit badakizun, irakurle, zertaz ari naizen. Jakin nahi baduzu, badakizu zer egin. ■

FERNANDO AMARICA
Mundua edertzeko grina

IRAILEKO ARRATSALDEA ZADORRAREN ERTZEAN (1902 INGURUAN)

Olioa oihalean. 110 x 145 cm

Xabier Gantzarain
@gantzarain

Beti egin zait harrigarria zenbat dakiten arteaz politikariek eta bankariek. Denek behar dute izan zaleak... Hauxe zioen 2010ean Xabier Iturbe Kutxako Lehendakariak, Donostiako Boulevard aretoan eskaini zioten erakusketaren katalogoan: "Inpresionismotik gertu egon arren, zaila da Amarica talde artistiko zehatz batean kokatzea. Adituek ere, Amaricaren lan lasai eta zintzoak ikusita, ez dute sailkatu nahi izaten".

Iaz bete ziren 150 urte Fernando Amarica Medina jaio zela (Gasteiz, 1866ko ekainaren 1a - Gasteiz, 1956ko azaroaren 6a), "giro zoriontsuan", berak esatera. Abokatu ikasketak egin zituen Valladoliden, bukatuta zituen 21 urte bete orduko, baina ez zuen sekula abokatu lanik egin. Aita baino 23 urte zaharragoa zen osaba hil zitzaion, txera handia ziona, eta hark utzitako diruekin bizi ahal izan zen artera erabat emana.

1893an hasi zen munduan besterik ez balego bezala pintatzen. Erroman egon zen 1895ean, eta bidaia egin zuen Italian zehar, egonaldia aprobetxatuz. 1898an Madrilen egon zen, Sorollaren ikasle; ordukoa du luminismoa, seguru asko. 1900. urtean Parisen egon zen, Erakusketa Unibertsala tokatu zen urtean, eta han ikusi zituen azken joerak, inpresionismoa tartean.

1903an Parisko Saloira aurkeztu zuen hemen ageri den koadroa, *Iraileko arratsaldea Zadorraren ertzean*, eta hautatua izateaz gain, laudorioak jaso zituen; Espainiako Prado Museoarena da gaur egun.

Luze bizi izan zen, eta halakoxea utzi zuen produkzioa ere, zatirik handiena bere izena daraman fundazioaren esku. Paisaiak margotu zituen batez ere, argia du gaia beti, leku eta une bakoitzaren bakartasuna, berezitasuna, tonuak, koloreen ederra, unearen bizia... Hilabeteak edo urtaroak aipatu ohi ditu izenburuetan, hemengo honetan bezala. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gozatu dosi txikitan

Xabier Etxaniz Erle

Xomorro poemak
LEIRE BILBAO
Ilustrazioak: Maite Mutuberria
Pamiela, 2016
78 orrialde, haurrentzat

Liburu benetan bitxia Leire Bilbaok eta Maite Mutuberriak egin dutena; edo egin dituztenak esan beharko genuke, bi liburu aurkeztu baitzituzten aurreko urte amaieran, orain komentatzen ari garen hau eta *Pizti poemak*, irakurle pixka bat helduagoei zuzendua. Bitxia da liburua poemen sinpletasun eta gustuagatik; eta bitxia irudiek duten garrantzia eta pisua liburuaren diseinuan, poemen ondoan hauek osatuz, edertuz.

Inurriak poema laburrarekin egiten du topo irakurleak orrietan barneratu bezain pronto, liburuaren hitzaurre gisa: "Inurriak. / Inurri tropel bat / orri zurietan barrena / abiatu zen / pausoz pauso / letraz letra / liburu hau idaztera". Eta hizkera hauxe da irakurleak liburuko orrietan aurkituko duena; sinplea, jolas moduan planteatua eta animalia ezberdinen inguruak eraikia. *Poema hegodunak* ditugu hasieran, ondoren *Uretako poemak*, *Narras-marraz poemak* eta *Poema orrolariak*. Eta aurretik aipatu bezala, protagonista ditugu hontzak, marigorringoak, marrazoa, zapaburua, lehoia, sugea... Estilo oso ezberdinetakoak dira poemak, baita eduki aldetik ere. Sugearena, esaterako, konparaketa bat dugu: "Sugea. / Sudurzuloan suge bat daukat / sigi-saga mugitzen. / Sudurzuloan suge bat / gora eta behera ezkutatzen. / Sudurzuloan suge bat / narrasa bezain bizkorra. / Sudurzuloan suge bat / nirekin doa edonora. / Sudurzuloan suge bat / nik zintz eta amatxok zast!". Beste batzuetan labur, trinko eta tragikoa: "Errepidea. / Igelak zeharkatu du errepidea. / Errepideak zeharkatu du igela". Baina badira herri tradizioaren hitz kateen estilokoak ere: "Beldurra. / saguak katuari / katuak zakurrari / zakurrak otsoari / otsoak eguzkiari / eguzkiak ilargiari / ilargiak saguari".

Irakurtzeko poema aproposak dira; eskolan haurrei, etxean lokartu aurretik... eta irudien bidez gozatzekoak; edo tabernetako pintxoak bezala noizean behin pikatzeko, irakurtzeko eta Mutuberriak irudietan eginiko proposamenetan murgiltzeko.

Aurreko batean unibertsitateko irakasle batzuk bildu ginen haur poesiaz hitz egiteko eta harrituta geratu ziren batzuk dugun eskaintza handiarekin. Urtero hainbat poesia liburu argitaratzen dira eta horrek bilduma nahiko zabala eskaintzen digu; tamalez liburu zoragarri horietako batzuk ia inork ez zituen ezagutzen (*Ilbetea dilindan*, *Hamabi titare*, *Irrikaren distira*...) eta agian hortxe egiten du gure literaturak huts; liburu ederrak argitaratu eta gero oihanean galdu egiten direla. Zorionez xomorroek badakite oihanean aurrera egiten; eta liburu honek baldintza guztiak betetzen ditu. Hurbil zaitez eta gozatu, dosi txikitan, Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren xomorro eder hauekin. ■

Leire Bilbao Barruetabeña idazlea (Ondarroa, 1978)

» TELEGRAMA

Demodé Quartet taldeak *Musika guztiak ia ia* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 5ean Donostiako Antzoki Zaharrean: harrigarria da lau musikari hauek *a capella* kantatuz egin dezaketena *STOP* **Post-rock gaua** Derioko Baserri Antzokian maiatzaren 6an: Böira eta Astralia taldeak zuzenean ikusteko aukera *STOP* Maiatzaren 5etik 12ra **Fant** jaialdiaz gozatzeko aukera izango da Bilbon: beldurrezko eta fantasiazko zinemaren zaleek galdu ezin duten zita *STOP* Iduzkilore antzerki taldearen **Telesforo ez da Bogart** antzezlana maiatzaren 7an Muskildin: hau laguntasun handi baten hasiera izan daiteke...

» KONTZERTUA

Txaikovski twist batekin

Montse Auzmendi

Tchaikovsky Symphony Orkestra

Zuzendaria:

Vladimir Fedoseiev.

Bakarlaria:

Varvara (piano-jotzailea).

Egitaraua: Txaikovskiren obrak.

Donostiako Kursaal Auditorioa.

Apirilaren 22a.

Donostiako Kursaal Fundazioak Txaikovski monografiko erabat atsegina oparitu zigun. Klasiko unibertsalak, publikoaren gustukoak, errazak entzuteko... Arrakasta segurua. Beraz, inongo arazorik ez txaloaldiak lortzeko. Baina kasu hauetan, betiko errepertorioaren faboritoak eskaintzen direnean, zerbait gehiago behar da benetako interesa pizteko.

Aldi honetan, orkestra interesgarri batek jotzeaz gain, bi pertsonalitate berezi izan genituen taula gainean: Varvara Nepomniastxaia piano-jotzaile errusiarra, oso musikari diferentea, eta Vladimir Fedoseiev zuzendaria, berezko estiloa duena, dudarik gabe. Osagai hauekin, merezi izan zuen saioak, gustatu ala ez.

Txaikovskiren *1. Piano eta orkestrarako kontzertua, si bemol minorrean, op. 23* benetako goxokia da. Nork ez ditu gustuko lan honen melodia zabalak, ameslariak, une folkloriko distiratsuak, joko erritmikoak... Obra zaila da bakarlariarentzat, dudarik gabe, eta beraz, interpretazio ona lortzeko behar da pianista trebea eta horrez gain, musikaltasun aparta duena. Varvara (hala da bere izen artistikoa, abizenik gabe) ez da musikari arrunta, berak ez du publikoa axolagabe uzten. Jotzeko era nerbioduna du, nolabaiteko antsietatea transmititzen du, eta hori ez da guztiz txarra. Musika "koskadaz" ateratzen zaio, modu bortitz batean. Jenioa du andreak. Baina, beste alde batetik, jotzeko era hau arriskutsua da. Eta hori sentitu genuen kontzertu hau interpretatzerakoan. Sarrera boteretsu eta ederra egin zuen. Diskurtso grinatsua eskaini zuen uneoro, baina garbitasuna falta izan zitzaion askotan, edo orkestrak estali zuen pianoren soinua beste batzuetan. Bestalde, kontrol pittin bat falta izan zen orkestra eta bakarlariaren arteko oreka lortzeko. Halere, esan bezala, publikoak disfrutatu egin zuen. Bis bat bota zuen Varvarak: Bachen *Sarabande*, polita, agian eztitsuegia

Bigarren zatian, beste klasiko bat entzun genuen: konpositore beraren *Zisneen lakua* balletaren zenbakietako aukeraketa bat. Lan honetan bai nabaritu zen Vladimir Fedoseiev zuzendariaren ikuspuntu berezia. Muturreraino eraman zuen zati bakoitzeko izaera, benetako interpretazio estilizatua lortuz. Vals leun eta erromantikoa entzun genuen; *Pas d'action* delako pasartean nabarmena izan zen kontzertinoaren *solo* zoragarria, eta erritmo bizi eta zorrotza eman zion Fedoseievek *Scène finale* zenbakiari. Propina pare bat egin zituzten, taxuz., saio osoa bezala. ■

Varvara Nepomniastxaia piano-jotzailea (Mosku,1983).
Vladimir Ivanovitx Fedoseiev zuzendaria (San Petersburgo, 1932).



Geldirik egon ezin duenarena

BUMAYE

Cabezafuego eta Beatriz Sanchez.
Martxoaren 31 iluntzeko 20:00etan.

Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

Bumaye. Horixe irakur zitekeen karteletan urrunetik. Ze bai, oraindik badago kartelei begiratzen dienik. Hori, eta Apolon zela Triangeluk antolatuta. Azken bi izen hauek nahikoa izan ziren bertara joateko gogoa sartzeko; izan ere, azken aldiko kontzertu sail interesgarrienetakoa ari dira antolatzen Triangeluko lagunak: formatu txikiko kontzertuak, gehienetan akustikoak, taberna baten sotoan, eta entzuleriari isiltasuna eskatzen zaiola.

Kartelera gerturatuta, ordea –ezin Bumaye soilarekin konformatu– Cabezafuego eta Beatriz Sanchez zeudela emanaldiaren atzean irakurri, eta Beatriz ezagutu ez, baina iruindarraren artearen berri bagenuenez, zer espero genezakeen jakin gabe, kontzertuen agendan sartu zitzaigun. Gure baitarako: "Auskalo zer ekarriko diguten oraingoan". Izan ere, ezagutzen genuen bakarra ezin uztarri bakarrera lotu: Atom Rhumba, Mermaid, Basque Country Pharaons, Bizardunak, Royal Canal... horiek dira artista honen beste proiektuetako batzuk. [aldizkari honetan bertan errepasatu du Iker Barandiaranek haren ibilbidea, musikariarekin elkarrizketan].

Egon denak badaki Cabezafuego tartean den emanaldietan *show*a egon ohi dela. Ordena eta logika jakinik gabe taularatzen ditu nafarrak kantuak, komentarioak, dantzak, *performance*ak... taula gaineko hiperaktibitate batek jota bezala. Kaosa, itxuraz. Inprobisazio kutsuz janzten du dena, eta ziur nago hein handi batean hala dela, eta horrek emanaldi bakoitza ezberdin bihurtzen du, erakargarri. Eta noski, umorea darabil –autoparodia, batez ere– iskina guztietan.

Halakoxea izan zen Apoloko emanaldia ere. Oinarrian, artean argitaratu ez zuen *Somos Droga* laneko kantuak. Erreproduktoreari *play* eman, eta teklatuarekin lagunduta jo zituen kantuok. Bere hitzetan, Cabezafuego Benidormen balego bezala. Kantuok irudiz janzten, berriz, Beatriz/Beatroz Sanchez: proiektore baten laguntzaz eta hainbat argazki, jostailu eta bestelako bitxirekin *collage* moduko bideoklipak eginez, zuzenean. Dotore, benetan.

Kantuetan, hau ere musikariak berak esana, jendearekin sartzen da, nahiz eta maitasun disko bat egin nahi izan zuen. Ez du inor salbu uzten, eta badu, duela urte batzuetako kantu batean zioen moduan, "enperadorea trajerik gabe dago" esateko nahi bat: umorez, parodiaz, eta itxurazko inkoherentzien gainetik –edo azpitik– jendarteari, eta zehatzago, adin jakin batetik gorakooi buruzko kritika zorrotzak egiten ditu. Eta hori guztia kantu eleganteetan. Kaosaren barnean badago ordena.

Kantuez gainera, Beatrizen irudiek Cabezafuegok berez baduenari ukitu are surrealistagoa eman zioten, jostaria. Janzteko modu ezin egokiagoa iruditu zitzaidan. Eta horren adierazgarri ere bada *Somos Droga* diskoaren aurkezpen bideoklipa berak egin izana.

Errepidean da, beraz, Cabezafuego: Bumaye izenpean, bandarekin, bakarka... Geldirik egon ezin duen artista hau ikusteko aukerarik ez nuke galduko, benetan. Eta errepikatzeko aukera baduzu, zortekoa zu. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Gipuzkoako antzokiak



Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

1 Elgetan 2004ko ekainean zabaldutako musika aretoa eta kulturgunea. Kultura programazio iraunkorra du: hainbat musika estiloz gain, antzerkia da jardunbide garrantzitsuena. Erreferentea da Debagoienan eta beste kafe antzokien filosofiari jarraitzen dio.

Zarateman-CC

2 Azpeitiko antzoki, zine areto eta kulturgunea. 2011ko ekainean ireki zituen ateak, Udalak ordura arte herriko zine aretoa zena erosi eta zaharberritu ondoren. Kulturaz Kooperatiba Elkarteak kudeatzen du.

3 Eibarko antzokia, 1949an inauguratu zuten. 1987. urtera arte zinema emanaldiak egiteko eta beste ikuskizun batzuetarako erabili zuten. Eraberritu ondoren, 2007ko martxoaren 23an berriro zabaldu zuten.

4 Donostiako Antigua auzoko bihotz-muinean dagoen Kafe Antzokia, 2007ko maiatzaren 11n zabaldu zituen ateak eta Bilboko, Elgetako, Ondarroako eta Durangoko kafe antzokien ereduari jarraitzen dio.

5 Tolosan dagoen antzokia. Bertan egin ohi da urtero Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa.

Ebazpenak

O		B		Z		D		D		E	
K	A	E	T	A		O	K	U	K	S	E
E	R	R	A	M	A	K	A		O	P	
R	R	R		A	D	A	K	E	R	A	S
K	A	O	L	R	T		A	P	U	L	
E	P		E	A	R	O	G	A		O	S
R	O	D	I	R	Z	K	A	I	D	I	
I		I	D	E		E	L		I	A	J
A	P	S	O		G	R	E	T	A		
	I	K	R	A	L	K		I	G	O	Y
A	I	O		U	S	A	E	R	O	S	
L	I	A	S	T	O	R	K	A	N	O	T
A	T		A	O	R	E	A		A	K	
I	A	B	I		O		S	I	L	O	C

Eleder Aurtenetxe. Berbazalea

Industria ingeniaritzaren barruan enpresa antolaketa berezitasuna egin zuen Eleder Aurtenetxe Pildainek, edo, beraren irakasle batek zioenez, *whiskiaren ingeniaritza*, enpresak ordezkatzen dituzten ingeniariak hala dabiltzalako, kopa tartean makina handien komertzial lanetan. Enpresa antolaketa irakasle eta teknikari moduan ibili da. Berak, hala ere, jendeen arteko elkarrizketa maiteago eta arazoak konpontzeko autoeraketa nahiago dituen erraztailetzat du bere burua.

"Bilera gutxiegi egin eta telebista gehiegi ikusten dugu Euskal Herrian"

Jabi Zabala
@sarean
ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Mundakako plazan

"Bilbon jaio eta txikitatik Zazpi Kaleetan bizi ostean, duela zazpi urte Mundakara bizitzera joan ginen, herriarekin aurretik loturarik ez bagenuen ere. Bilbon Bihotzean auzo elkartean ibilia nintzen eta Mundakan zerbait antolatu nahi nuen. Hirian aktibismoa dago, gaikako talde asko; herrian dena da bat. Badira familiak, tabernak, lonjak eta txokoak, baina kezkak badituzu eta ez bazaude egitura informal horietako batean… Posta zerrenda bat abian jartzea bururatu zitzaidan, kezkak, iritziak plazaratzeko. Oso baliagarria suertatu da 'Mundakako plaza' taldea, izan ere, plaza irekian iritzi soziopolitikoak emateko ohitura gutxi dago Euskal Herrian, familian eta lagunartean geratu ohi dira".

Zure kezka eta zaletasuna elkarrizketa ei da.

Sormena eta ikastea dira nire motorrak. Horren barruan elkarrizketa tresna itzel sinplea, erabilgarria eta ederra da. Ahozko adierazpidea idatzizkoa baino maiteago dut. Irakurtzea eta idaztea ere gustuko ditut, baina askoz bide motelagoak dira. Hizketan, pertsonak ezagutzea eta pertsonen arteko zubi lana egitea maite dut. Behin informatikari batek esan zidan *hub* bat nintzela, pertsona batzuk besteekin harremanetan jartzen dituena.

Zer dira gune irekiak?

Metodo moduan, talde handien batzar luzeak antolatzeko modua da gune irekien teknika (*Open Space Technology*). Autoeraketan oinarritua dago, bizitza etengabe autoeratzen ari delako. Gai konplexu, premiazko eta gatazkatsuen inguruan jarduteko modurik onena denbora luzea hartzea da, egun bat edo bi, eta gaiari lotutako ahalik eta jende gehieni gonbita zabalduta, jarrera ahalik eta kontrajarrienak bildu daitezen. Gune irekietan agenda zuri dago hasieran, jendeak berak osatzen du eta oso teknika emankorra, atsegina eta arina da, elkarrengandik ikastekoa. Gero eta gehiago gara batzar irekien zale, eta Gune Irekiaren Lagunak taldean gabiltza.

Baina egun bilerak optimizatzeko metodo gehienek denbora laburrean emaitza zehatzak lortzea bilatzen dute. Nola uztartzen da hori bilera irekia eta agenda zuriarekin?

Bilerak era askotara egin daitezke, baina demagun gai korapilatsua daukagula, eragile askok jarrera kontrajarriak dituztela, konponbidea premiazkoa dela. Nik ziurtatzen dizut bilera irekiko formatuan egiten badira, eragileak askoz aktiboago aterako direla, merezi izan duela pentsatzen. Konponbidea lortuko duzu? Agian ez, baina beste erara ere ez. Aktore asko eta askotarikoak biltzen badituzu, batzuek besteenak entzunda, ideia berriak atera daitezke eta erantzukizuna dutenek erabaki hobeak hartu ahal izango dituzte, arazoaren konponbiderako hobea izango da. Dena bateratzea eta ondorioak ateratzea zaila izango da, horregatik, askotan kongresuren

"Gune irekiko bileretan lege bakarra dago, oin biena: entzuten ari zarenak ez badizu ezer ematen, erabili oinak beste nonbaitera joateko, gune irekietan, aldi berean, beste hainbat bilera egiten dira eta".

bat egiten da eta esaten dutenean "honakoak dira ondorioak"... Hori fikzioa da, txostena idatzi duenak edo buruan izan duenaren ikuspegia baino ez, beste parte hartzaileek beste ondorio batzuk aterako dituzte. Bizitzan norabide asko daude eta horrek egiten du ederra.

Bilera asko egiten omen dira Euskal Herrian. Ondo egiten ditugu euskaldunok bilerak?

Denetarik dago. Pasioa eta ardura dira ezinbesteko bi oinarriak. Gogoz joanez gero eta bilera ondoren egin beharrekoekin ardura pixka bat hartuz gero, oso emankorra izango da. Bilera gutxiegi egin eta telebista gehiegi ikusten dugu Euskal Herrian.

Bilera handietan bada bere burua entzutera doan figura beldurgarria.

Pertsona hori bakarrik utziko bagenu, arazoa amaituta. Jendea libre da beste nonbaitera joateko, obedientziagatik geratzen dira. Dena hezkuntzari lotuta dago, eskolarena eta gizartearena, eta obedientzia Elizak ezarri digu. Gune irekiko bileretan lege bakarra dago, oin biena: entzuten ari zarenak ez badizu ezer ematen, erabili oinak beste nonbaitera joateko, gune irekietan, aldi berean, beste hainbat bilera egiten dira eta. Derrigorrez egon behar duzun gune formal batean, aldiz, ezin duzu hori egin.

Zer dira i-bilerak?

Ibiltzen egiten diren bilerak. Bulegoan, tabernan-edo bildu ordez, eguraldia lagun, ibiltzen egin ditzakegu bilerak. Mugimenduan jartzen gaitu beste modu batean, sorpresak sor daitezke, bidean lagunak aurkituta. Burua eta, aldi berean, gorputza mugitzea da. Iñigo Retolaza lagunak eta biok ekin diogu Berbaroa proiektuari, galdera honen inguruan: zer egin behar dugu Euskal Herrian elkarrizketaren kultura hobetzeko? Eta astebete eman dugu Ipar Euskal Herrian i-bileraz i-bilera gaian sakontzen.

***Berbaz* elkarrizketa saioa ere egiten duzu aspaldion Bilbo Hiria irratian. Nola definituko zenuke?**

Ordubeteko solasaldiak dira, patxadatsuak, ikastekoak, pertsona ezagutzeko asmoz. Ez dut ezer zehatzik bilatzen. Askotan eremu publikoan mugitzen diren lagunak dira, eta saiora ekartzen ditudanean gehiago ikasteko helburuz nahi ditut ezagutu.

Dokumentazio taktika bitxia darabilzu gonbidatuekin: bazkaltzera gonbidatzea.

Ez naiz kazetaria eta ez dut dokumentazioa bilatzen denbora gehiegi eman nahi. Dokumentazio bazkaria egiten dut, bertan konfiantza hartu eta informazioa jasotzeko. Erraz egiten da hori, eta batzuetan ardoak laguntzen du. Buru-mapatxo bat egiten dut saioa grabatu aurretik, eta gero elkarrizketak bere bidea jarraitzen du.

Buru-mapak aipatu dituzu, eta izen bereko bloga ere baduzu. Zer dira buru-mapak?

Ideiak idatziz adierazteko eskema hierarkizatuak dira, memoria eta sormena laguntzen dutenak. Oso bisualak dira, erdigunean gaia adierazten duen irudi koloretsua dago eta adarrak zein azpiadarrak sortzen zaizkio, gako-hitzekin. Asoziazioek laguntzen digute memorizatzen eta ideia berriak sortzen. ■



Erasotzaile unizelularra Bilbon taxi bat gelditu nahian

“Betiseko neonaziaren bideoa zabaldu duten pertsonak ikertzen ari da Ertzaintza, “desgaitu mentalak seinalatzeagatik”

Bilboko Plaza Berrian zegoen pertsona bati eraso egin zion neonazi sevillarraren bideoa zabaldu duten pertsonak ikertuko ditu Ertzaintzak. “Gizarajoa, bere ezintasun mentalarekin nahikoa ez eta orain espektakulu hau”, esplikatu du Ertzaintzako iturri batek: “Guztiok dakigu neonaziek jaiotzetiko defektu bat dutela garunean, bizi osoan horrelakoak izatera derrigortuko dituena. Ez dute beraiek aukeratu, gauza horiek tokatu egiten dira. Zer kontatuko diguzu guri, ertzainoi”. Ikerketako iturriek nabarmendu dutenez, neonazia Betis zalea izateak are larriago bihurtzen du jasan duen laido publikoa: “Nekez edukiko du zorte txarragorik pertsona batek”. Bestalde, baieztatu dute neonaziak Bilbon galdu zuen neurona aurkitu dutela jada, Zazpikaleetako taberna bateko komunean.

SAREAN ARRANTZATUA

Larumbatean besterik eta batetik niñoak dohainik

The Sparteens

Inoizko mobilizazio jendetsuena maiatzaren lehenean

Sindikatuak oso pozik agertu dira aurtengo maiatzaren 1ean euskal langileriak kapitalismo basati eta txarrari emandako erantzun masiboa dela eta. “Inor ez da etxean geratu eta hori txalotzekoa da, neoliberalismoaren oldarraldiak ez du beste erantzunik merezi”, esan dio Beranduegiri Itsaso Perez Arenaza LABeko aisialdi arduradunak. “Prekarietatearen aurrean, langile borrokaren olatuak ez du etenik”, adierazi du ELAren izenean Oier Jaizubiak; “gaur kabitu ezinik ibili dira patronalari hortzak erakusteko elkartu diren milaka herritarrak, benetan hunkigarria izan da, aizue”. Beste behin ere langileriak agertu du bere eskubideen alde bustitzeko prest dagoela, ELAren iritziz. “Ez dugu amore emango boteredunen txiringitoa eraitsi arte”, gaineratu du Jaizubiak. Beste sindikatuen iritziaz paso egiten dugu.

Zarautzen bereziki sentitu da langile klasearen indarra

III. “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak

LEO PAHKIN Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkularia

HEIKE FREIRE *Cuadernos de Pedagogia* aldizkariko zuzendaria

Maiatzak 19 eta 20. DONOSTIA

Landuko den gaia

HARREMANAK: harreman osasuntsuak izatearen garrantzia norberaren garapenerako eta komunitatearen ongizaterako.

Antolatzailea: OinHerri

Irrien Lagunak Kluba, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Amarauna Sarea, Tabakalera, Arremanitz elkartea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkartea, Urtxintxa Eskola Bizkaia, Urtxintxa Eskola Gipuzkoa, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Ttakun Kultur Elkartea, Kukumixo, Elgoibarko Izarra, Pil-pilean euskara elkartea eta Hik Hasi pedagogia-ekimena.

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com